



PIRATAREN ANDREA
EMILIO SALGARI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

EMILIO SALGARI

pirataren andrea

Itzulpena:
Gilermo Etxeberria

ALDE, SANDOKAN

Oraindik ez zen ekaitza baretu. Gaua haserre zegoen. Haizeak ulu egiten zuen adar tartetan. Hauek zeharo okertzen ziren, hautsi nahiko balute bezala. Hostoak, milaka, hega larrian zebiltzan. Noizbehinka, tximista ikaragarri bat lehertzen zen. Laino beltzak gogorki urratzen zituen. Eta basoko landare handienen arteko bat ipurdiz gora jartzen zuen.

Baina ekaitz hori ez zen nahikoa bi piraten ibilaldia mozteko. Ez ziren beldurtzen eta aurrera jarraitzen zuten. Errekara iritsi nahi zuten han itsas ontziren bat babestu zen ala ez ikusteko.

Euria goian-behean ari zuen. Haiei, ordea, ez zitzaien axola. Berdin zitzaien. Basoan aurrera zihoazen. Arretaz eta kontuz, bertako zuhaitz adarren bat buru gainera eroriko ote zitzaien beldurrez. Tximistak erreka bazterrak argitzen zituen. Laster iritsi ziren erreka bokalera.

Ilun egon arren, egunez baino hobeto gidatu gara —esan zuen Yañez piratak—. Izan ere gau hau, zortea da.

Sandokan urbazterrera jaitsi zen. Eta tximista baten argiaren zain egon zen ingurura begirada bat botatzeko. Begiratu zuen:

— Ezer ere ez! —esan zuen erdi ixilik—. Zerbait gertatu ote zaie bada nire itsasontziei?

— Nik uste dut, hartu dituzten babeslekuetatik oraindik ez direla mugitu ere —erantzun zion Yañez piratak—. Beste ekaitz baten beldurrez egongo ziren. Zuhurrak dira eta ez ziren mugitu ere egingo. Zuk badakizu, oso zaila da horrelako haize eta olatuekin lehorreratzea.

— Errezelo gogorretan nago —Yañez.

— Zeren beldur zara ba?

- Ur azpira joan ote diren beldur naiz.
- Ez ba! Ez dut uste. Gure itsas ontziak oso sendoak dira! Egun batzuk itxaron eta ikusiko duzu.
- Baina, badia honetan elkartuko ginela hitz eman zuten, ezta?
- Bai, egon lasai, etorriko dira eta. Orain bila dezagun aterpe bat. Uholde gaitza ari du eta ez dirudi ekaitz hau oraindik baretuko denik.
- Bai, eta non? Girol-Batol hark egindako txabola aurkituko bagenu... Ez litzateke txarra izango. Baina, ez dut uste uharte honetan aurkitzeko gauza naizenik.
- Sar gaitzen platano haien tartean. Bere hosto haundi horien azpian babes bikaina aurkituko dugu.
- Horretarako, hobe dugu aterpetxo bat egitea.
- Arrazoia duzu. Ez zitzaidan bururatu ere.

Ekaitza ez zen gau guztian baretu.

Goiz aldera, ordea, lasaitu zen eta bi piratek lo sakona egin zuten hamarrak arte.

- Goazen gosari bila —esan zuen Yañez horrek, begiak ireki bezain laster—. Ia gaur ere ostra haundiren bat aurkitzen dugun.

Badia aldera zuzendu ziren. Hegoaldeari jarraituaz. Harkaitz tartean ostra eder ederrak topatu zituzten. Eta baita beste oskoldunak ere.

Horretaz gainera Yañez itsaslapurrak, platanoak, laranjak eta abar ekarri zituen.

Gosari oparo hura bukatu bezain laster, itsasontzi bila joan ziren berriro. Ipar aldera.

— Agian zaparrada honek ez die hegoaldera etortzen utzi —
Yañezek. Haizea kontrakoa izan baitute denbora guztian.

— Hala ere ez nago lasai —erantzun zion Malasiako tigreak—.
Kezkatua nago. Berandu etortze hau ez zait normala iruditzen.

— Ba! Gure gizonak itsasgizon trebeak dira.

— Mariana horrek aurkitu ote du gure abisua? Zer iruditzen zaizu?
—galdetu zuen Sandokanek.

— Seguru baietz.

— Orduan etorriko da zitara. Ez da dudarik.

— Ahal badu bai.

— Zer esan nahi duzu, Yañez?

— Lord James zelatan ote duen beldur naiz.

— Dena dela, zitara joan behar dugu. Bihotzak ikusiko dudala esaten
dit.

— Ederki. Baina zuhur jokatu. Dudarik ez izan Sandokan, parkean,
eta basetxean gudariak egongo direla.

— Hori badakit lehendik ere.

— Bada, ez gaitzatela ustekabeen harrapa.

- Patxadaz jokatuko dut.
- Agintzen al didazu?
- Hor doa nire hitza.
- Orduan, aurrera.

Zuhur eta mantso, basetxe aldera abiatu ziren. Baina erne, ze bide bazterretan tranpak egon bai zitezkeen. Ez zen han erortzea giro izango. Parke ingurura iritsi ziren. Arratsaldeko zazpiak aldean. Ilunabarrak oraindik uzten zuen argiuneari esker basetxea begiratu eta aztertu zuten.

Ez zirudien inguru hartan zelataririk zegoenik. Batak besteari lagunduaz pasa zuten hesia.

- Basetxeko leiho batetan ofizial bat ikusten dut —esan zuen Sandokan piratak.
- Eta nik zelatari bat etxearen izkina batean —Yañezek—. Gaua izan arren, gizon horrek hor segitzen badu, eragozpen haundia egingo digu.
- Orduan, beste aldera bidaliko dugu —Sandokanen hitzak.
- Ez ote litzateke hobe ustekabe harrapatu eta mutur lotzea? Ba al dugu sokarik?
- Nire gerrikoa, agian.
- Ondo dago... Baina... alu aleenak!
- Zer ikusi duzu, Yañez?
- Ikusi leihoak. Denetan burdin sareak jarri dituzte!

- Urde zikinak —erantzun zuen Sandokan berak.
- Anaia maite: Lord James horrek, ondo ezagutzen ditu Malasiako Tigrearen ohiturak. Hori da gero...
- Orduan, Mariana bera ere ondo zaindua egongo da.
- Ziur baietz, Sandokan.
- Eta ez ote da zitara etorriko?
- Agian ez.
- Bada, nik ikusi behar dut, nola edo hala!
- Nola edo hala? Baina, nola?
- Leihora eskalatuaz! Ez al didazu zerorrek galdetu, sokaren bat ekartzeko esan didazunean?
- Eta soldaduak begiztatzen bagaituzte?
- Borroka egingo dugu!
- Biok bakarrik?
- Ez al dakizu izugarrizko beldurra digutela?
- Bai, bai, hala da baina...
- Guk haien arteko hamarrek baino gehiago dezakegu.
- Bai, bai. Baina balak ez dute barkatzen. Begira, begira!

- Zer ikusten duzu?
- Soldadu batzuk. Badoaz —esan zuen portugaldarrak zuhaitz baten gainetik.
- Eta nora doaz?
- Parketik irtetzera doaz.
- Inguruak zelatatzera ote doaz bada?
- Agian bai.
- Hobe guretzat.

Sandokan altxatu zen. Basetxera joan nahi zuen. Nahiz eta bidean soldaduekin aurpegiz aurpegi ikusi behar.

Baita Yañez ere. Altxatu zen eta Sandokani besotik heldu zion.

- Lasai, anaia! —esan zion—. Zuhur jokatuko duzula agindu didazu.
- Ez dut inoren beldurrik —Sandokanek—. Denetarako prest nago.
- Nik, ordea, oraindik maite dut nire larrua. Ez al zara oroitzen izkinan dagoen zelatari horretaz ala?

Zelatari gaztea, ordea, erdi lotan zegoen. Ez zuen asko espero inork molestatuko zuenik.

- Prestu al zaude Yañez —galdegin zion Sandokanek.
- Aurrera!

Basakatuek baino salto haundiagoa emanaz, Sandokanek zelatariari

lepotik heldu zion. Bota zuen lurrera. Eta atzetik Yañez. Mutur lotu zuen. Gero esan zion:

— Erne! Mugimendu txikiren bat egiten baduzu bihotza erdibituko dizut.

Gero esan dio Sandokani:

— Orain igo zaitezke. Ba al dakizu zeintzuk diren leihoak?

— Noski, baietz —erantzun zion besteak—. Mahats parral horren gainekoak. Ai, Mariana! Hemen nagoela bazeneki!

— Lasai, anaiatxo, lasai. Ikusiko duzu eta, ez bada deabrua tartean jartzen.

Bat batean, ordea, pauso bat atzera jo eta izugarrizko marrua bota zuen Sandokanek.

— Zer da? —galdetzen dio Yañez lagunak zurbil-zurbil.

— Bere leihoak ere burdin sarez itxi dituzte.

— Ez zaio axola. Horrek ere badu bere erremedioa.

Harri koskor batzuek hartuaz, leihoko kristalaren kontra bota zituzten: kaxka-kaxka. Bi itsaslapurrek arnasa ito nahi zuten, emozio biziz.

Ez zuen inork erantzun. Yañezek ostera beste harri koskor bat bota zuen. Gero bestea, eta bestea.

Halako batean leihoa ireki zen. Ilun egon arren, Sandokanek emakume baten itzala nabaritu zuen han. Baita berehala ezagutu ere.

— Mariana! —esan zion neska gaztearengana besoak altxatuz.

Itsaslapurra ikustean, neskak oihu gozo bat bota zuen.

— Animo Sandokan! —esaten dio Yañezek neska agurtzen zuen bitartean—. Igo zaitetz leihora, baina azkar ibili, ze hemen nahiko arriskuan aurkitzen gara eta.

Erbiak baino bizkorrago salto egin zuen. Mahatsaren ondotik laster iritsi zen leihoraino. Trinko heldu zion burdinsareari.

— Zu al zara, zu al zara! —esaten zuen neskatoak emozio biziz.

— Mariana! Nire maite maitea! —erantzun zion Sandokanek eztarria itoaz. Azkenean ikusten zaitut. Oraindik ezagutzen al nauzu?

— Bai, Sandokan, une guztietan oroitzen naiz zutaz. Hilda zeundela uste nuen eta... Hau poza! Ezin zait barruan kabit.

— Beraz..., hilda nengoela uste zenuen, ezta?

— Bai. Eta ez dakizu ongi zenbat negar egin dudan horregatik!

— Bada, hementxe nago bizi-bizi. Malasiako Tigrea ez da hain erraz hiltzen. Zure herritarren tiro artetik min txikirik ere hartu gabe aldegin nuen. Itsasoa pasa dut. Nire mutilei deitu diet. Eta hemen nator ehun tigreen buru bezala zu salbatzera.

— Sandokan! Sandokan!

— Orain entzuniezaidazu: jarraitu zuen piratak—. Hemen al dago Lord?

— Bai, hemen dago. Eta gatibu nauka, zu itzuliko ote zaren beldurrez.

— Soldaduak ikusi baititut.

— Bai, soldadu askok zelatatzen naute. Beheko etxebizitza bete beteta dago. Ez didate pauso bat ematen ere uzten. Nire tigre maitea. Beldur naiz, ez ote garen sekulan elkartuko. Nire osaba horrek ez luke inola ere onartuko. Ahalegin guztia egingo du. Beldur naiz, ez ote naizen sekulan zoriontsu izango.

Orduan bertan, mahats azpian txistu soinua entzun zen. Marianari, oilo ipurdia atera zitzaion gorputz guztian.

— Entzun al duzu?

— Bai, lasai, Yañez da. Dagoeneko urduri baitago.

— Agian arriskuren bat ikusi du. Agian iluntasun honetan zure aurka tranparen bat botatzen ari dira. Ai Jainkoa, iritsi da agurtzeko ordua!

— Mariana!

— Berriro elkar ikusten badugu!...

— Ez horrelakorik esan, maitea. Noranahi eramaten bazaituzte ere, hara joango naiz ni zure bila.

— Bai, eta bitartean...

— Ordu gutxiren kontua besterik ez da. Agian bihar bertan etorriko dira nire mutilak. Murru hauek desegingo ditugu guk.

Berriro ordea, txistu soinua entzun zen.

— Zoaz azkar, zoaz azkar. Arrisku handiren batetan zaudela iruditzen zait.

— Ez naiz beldur!

— Zoaz, Sandokan, otoi, zoaz. Harrapatu baino lehen, alde egin ezazu.

— Utzi! Utzi behar zaitut! Hau mina! Zergatik ez ote ditut nire mutilak ekarri? Haiek erasotuko zuten etxea eta...

— Zoaz, Sandokan, zoaz. Inguruan pauso hotsa entzuten dut.

— Mariana!

Une hartan, ahots zakar bat entzun zen gelan:

— Miserablea.

Lord jauna bera zen. Eta Marianari besotik heldu zion. Une berean beheko etxebizitzako zerraila soinua entzun zen.

— Ihes! -oihu egin zuen Yañezek.

— Ihes! —esan zion Marianak.

Beraz, Sandokanek antzeman zion arrisku bizitan zegoela. Salto handi bat emanaz, mahats adarren gainetik lorategira iritsi zen.

PRESTU KARABINA!

Beste edozeinek hautsiko zituen bi hankak halako salto bat emanaz gero. Baina ez Sandokanek. Pantera bat bera baino biziagoa baitzen.

Salto egin bezain laster, altxa eta hartu zuen eskuan ezpata. Norbait bazegoen ere larrua defendatzeko.

Han zegoen zorionez Yañez.

— Alde egin ezazu, txoraa! Zer nahi duzu, tiroz jostea ala?

— Utz nazazu Yañez —esan zion Sandokanek urduri eta bizi—. Eraso dezagun basetxea.

Hiruzpalau soldadu atera ziren leihotik fusilak eskuetan zituztela.

— Ero-eroa —esan zion Yañezek arrastatzen zuen bitartean—. Burugogorra. Salta dezagun hesia. Txoratu zara buruhandi hori!

Berehala basetxeko atea ireki eta hamar soldadu armatu atera ziren beste hainbeste herrikoekin batera. Lastargi eta guzti zetozen gauez ikusteko.

Portugesak tiro pare bat bota zuen sasi tartetan. Eta soldaduen buru egiten zuen sarjentoa lurrera erori zen.

— Bizkor, anaiatxo, bizkor —esaten zion Yañezek, besteek sarjento zauritua zaintzen zuten bitartean.

— Ezin dut bakarrik utzi, ezin dut.

Bere burua zeharo galdua zeukan.

— Ihes egiteko esan dizut. Zatoz edo arrastaka eramango zaitut!

Handik hogeita hamarren bat metrotara bi soldadu azaldu ziren. Eta haien atzetik beste pila bat.

Orduan bai, ez zegoen duda egiterik. Tiro pare bana bota zituzten sastraka tartean. Lasterka bizian, basakatuak baino arinago hesia saltatu zuten.

— Aurrera, anaiatxo, aurrera —esaten zion Yañezek lagunari. Eta korrika zihoan bitartean karabina kargatzen zuen.

Bihar etorriko gara berriro hauengana bizkarretik botatzen dizkiguten tiroen eskerrak ematera. Orain goazen.

— Yañez —esaten dio Sandokan lagunak—. Itsutu egin naiz. Eta orain beldur naiz dena hondatu ez ote dudan.

— Zergatik, ordea?

— Orain badakite agian ni naizela, eta erne egongo dira, ustekabeen harrapa ez ditzadan.

— Eta zer? Gure itsasontziak, gure prao famatuak etorri baldin badira, ehun tigre izango gara. Nor da gauza guri kontra egiteko?

- Lord bedeinkatu horrek beldurra ematen dit.
- Zer egin dezake bada?
- Nere eskuetan utzi baino lehen, kapaz da hori iloba akabatzeke.

Arnas hartzeko gelditzera zihoazen. Baina gau ilunean, linterna txikien antzeko argiak begiztatu zituzten.

- Ingelesak dira, ingelesak dira —esan zuen—. Gure aztarrenak erreparatu dituzte eta gure atzetik datoz. Korri dezagun Sandokan.

Baina, zaila baitzen handik aurrera bizkor joatea. Zuhaitz asko eta asko zegoen han. Batzuk lodiak, besteak korapilotsuak, adarrak nonahi, bere pisuaren mendean lurreraino makurtzen ziren. Zenbait lurrean eroriak.

Baina orientazio bikaineko mutilak ziren eta bazekiten laster basoko hesira iritsiko zirela.

Eta basoko zuhaitz tartek igaro eta berehala lur zabal eta landuen artean aurkitu ziren.

Korrika biziari utzi gabe, kiosko txino baten ondotik pasa ziren. Lur landuen hildoari jarraituz, hesiraino iritsi ziren. Soldaduek haien aztarrenak galduak zituzten.

- Poliki, Sandokan —esaten dio Yañezek—. Poliki hesi haundi hau pasatzerakoan. Ze lehen bota ditugun tiroak entzun eta agian kanpoko soldaduak ere inguruan egon daitezke eta.

— Parkean sartu ote dira bada?

— Isilik! Makurtu eta entzun!

Sandokanek belarria luzatu zuen. Baina ez zuen hostoen soinu isila besterik entzun.

— Norbait ikusi al duzu? —galdegin zion.

— Kanpoko aldetik adar baten kraskatekoa entzun dut.

— Piztiaren bat izan zitekeen.

— Bai, noski, baita soldaduak ere. Gehiago ere esango nizuke. Ixilmixilean hitz egiten ere entzun dudala iruditu zait. Apustua ere egingo nuke hemen inguruan txamarra gorriek tranparen bat jarri digutela.

— Bai, Yañez, bai. Baina, hala balitz ere, ez gara hemen geldituko, ez da?

— Zer egin nahi duzu?

— Bidea libre dagoen ala ez jakin nahi nuke.

Sandokan zuhur ibiltzen hasi zen. Begiratu zuen parkeko zuhaizpetik. Gero, katu baten arintasun eta isiltasunarekin, igo zen itxituraraino eta begirada bat bota zuen.

Hesi gainera iristerako, ahopetik hitz egiten entzun zuen. Arrazoia zuen Yañezek. Begiratu zuen aurrera, eta han, ilunpean, zuhaitz lodi baten oinetan jende multzo bat begiztatu zuen. Iluntasuna handia izan

arren, berak nabaritu egin zituen.

Jaitsi eta Yañez zegoen lekuraino joan zen.

— Arrazoia duzu —esan zion—. Beste alderditik jende multzo bat dago zelatan.

— Asko al dira?

— Dozenaerdi bat edo.

— Mila deabruak!

— Zer egingo dugu, Yañez?

— Aldegin hemendik eta beste bideren bat hartu ihes egiteko.

— Berandu samar izango da dagoeneko. Hala uste dut. Mariana gaixoa! Agian hilda edo preso gaudela usteko du.

— Goazen!

— Isilik, Sandokan. Beste aldetik ere hizketan ari dira.

Egia, hesiaren beste aldetik bi ahots lodi entzuten ziren. Haizea alde zegoenez, ulertu zitekeen esaten zutena ere:

— Zera diotsut —esaten zuen ahots lodi batek—. Piratak kinta barrura sartu direla sorpresazko kolpe bat emateko.

— Ez dut uste, Bell sarjentua—erantzun zion besteak.

— Zoro-zoroa. Orduan zer? Gure adiskideak brometan aritu ote dira bada tiroka?

— Bada, sartu badira, ez dute gure atzaparretatik ihesirik egingo!

— Hala uste dut. Hogeita hamasei gara, eta nahiko gara finka guztia behar bezala zaintzeko eta zelatatzeko.

— Ea, mugitu, eta erne ibili. Gutxiena uste duzuenean, Malasiako Tigrea mutur aurrean azal daiteke eta.

Hitz hauek esan ondoren, adar soinua entzun zen. Gero isiltasuna.

Soldaduek oinatz guztiak, piraten arrastoak galdu zituzten. Noraezean zebiltzan, zorte onez bilatzen ote zituzten edota bestela eguna argitu zain.

— Oraingo, behintzat, ez dugu zergatik horien beldur izan behar — esan zuen Sandokanek.

— Beste nonbaitetik ihes egingo al dugu? —galdegin zuen Yañezek—. Parke hau oso handia da eta agian, txokoren bat zaindu gabe egon daiteke.

— Ez, adiskide, ez. Ikusten bagaituzte, atzetik etorriko zaizkigu berrogei gutxienez. Haien atzaparretatik nola aldegin? Parke barruan ezkutatzeari komeni zaigu.

— Non, ordea?

— Etorri nirekin, Yañez. Lehen, erokeriak ez egiteko esan didazu. Orain ikusiko duzu zein zuhurra naizen. Nire neskatoa hilko litzateke ni ere hilko banindute. Beraz, kontuz ibil gaitezen.

— Eta soldaduak, zer? Ez al gaituzte harrapatuko?

— Ez dut uste. Gainera ez gara hemen luzaroan egongo. Bihar gauean, nolnahi ere, alde egingo dugu. Etorri, Yañez. Leku seguru batetara eramango zaitut.

Bi itsaslapurrak urrutiratu egin ziren.

Parkean aurrera jo zuten biek. Sandokan aurretik, Yañez atzetik. Lord jaunaren etxetik bostehunen bat metrotara, etxe koskor bat zegoen. Loreen negutegia bat zen. Atea ireki eta barrura sartu ziren.

— Piztu ezazu kandela mutur bat.

— Ez al gaituzte kanpotik ikusiko?

— Ez dago arriskurik.

Etxetxo hura lorontziz, usain gozoko lorez eta aulki ugariz beteta zegoen. Bazterrean, izugarrizko berogailu handi bat zegoen. Kabitu zitezkeen barruan bost pertsona ere.

— Hemen ezkutatuko al gara?—galdetu zion Sandokani—. Ez zait lekua zeharo segurua iruditzen. Soldaduak etorriko dira. Ez ahaztu Lord jaunak mila libra agindu dituela zure burua harrapatzeagatik.

— Agian etorriko dira soldaduak, bai.

- Eta harrapatuko gaituzte.
- Poliki, Yañez, poliki.
- Zer esan nahi duzu?
- Ez zaiela estufa barruan begiratzea bururatuko.

Yañez barrez, leher zorian jarri zen.

- Ondoko estufa horretan?
- Bai, ondoko estufa horretan. Barruan ezkutatuko gara.
- Baina, anaia txikia, hor barruan sartzen bagara, Afrikako beltzak baino beltzago aterako gara.
- Eta, zer. Gero garbituko gara.
- Baina, Sandokan...!
- Ez baduzu sartu nahi, hor konpon ingeles hauekin. Bi bide daude: estufa barruan ezkutatu ala madarikatu horien atzaparretan erori.
- Beste biderik ez badago —erantzun zuen Yañezek algaraka—. Ikus dezagun bada gure etxe berri hori.

Beraz, ireki zuen estufaren burdinezko ate handia. Eta besterik gabe, usin eginaz barrura sartu zen. Bere atzetik Sandokan.

Barruan ikatza eta hautsa gogotik zegoen. Hala eta guztiz ere, ederki kabitzen ziren han barruan.

Portugaldarra oso umore oneko gizona zen. Han barruan zegoela, oraindik ere algara biziagoa egin zuen. Eta hala esan zuen:

— Nork pentsatu behar du Malasiako Tigre beldurgarriak hemen ezkutatua egon behar duenik. Mila deabruak etor daitezela.

Ziur nago ez gaituztela aurkituko.

— Isilago hitz egin ezak, motel -esan zion Sandokanek—. Entzun gaitzakete.

— Bai zera... gizona, oraindik urruti daudela uste dut.

— Ez hain urruti, zera. Hona sartu aurretik eta berrehunen bat metrotara bi soldadu aztarrika ari zirela ikusi ditut.

— Hona ere etorriko ote dira bada?

— Seguru baietz.

— Deabruak. Eta estufa ikustea bururatzen bazaie?

— Bueno, harrapatzen ez gara utziko behintzat. Armak baditugu eta eraso bati erantzuteko gauza gara.

— Eta, jan, zer? Ez gara hasiko noski, ikatza jaten, ez da? Gainera, estufa honen hormak ez dirudite hain gogorrak. Bultzada sendo batez bota daitezke.

- Pareta hauek bota aurretik borrokan hasiko ginateke.
- Baina beharrezkoak ditugu janariak.
- Aurkituko ditugu —Yañez—. Egon lasai. Inguru honetan, platanoak eta kokoak ugari dira. Biltzera joango al gara?
- Noiz?
- Isilik. Hitz hotsa entzuten dut eta.
- Beldurra sartu didazu, gizona.
- Prestu eduki karabina. Entzun!

Kanpo aldetik hitz hotsa entzun zitekeen. Bazirudien zenbait pertsona inguratzen ari zirela. Hostoen eta lurreko harri txantzarren soinua entzuten zen.

Geldi-geldi egoteko agindu zion Sandokanek lagunari. Eta estufako burdinazko atea ireki zuen kanpora begiratzeko.

Alderdi hura iluna zegoen. Baina kristalen tartetik zenbait lastargien argia ikus zitekeen.

Bospasei soldadu ziren aurretik bi beltz zituztelarik.

- Sartuko ote zaizkigu barrura? —galdetu zuen urduri.

Berriro ere itxi zuen burdinazko atea, kontuz eta zaratarik atera gabe.

Une berean lorategiko atea irekitzen hasi zen.

— Badatoz, badatoz! —esan zion lagunari. Egon prest alu hauen kontra saltatu behar badugu ere. Prestatu al duk karabina?

— Gatiluan daukat behatza.

— Ondo dago. Eskuratu ezpata ere.

Soldadu taldea sartu zen barrura. Negutegi guztia argitu zen haien lastargiekin. Soldaduak bazterrak miatzen hasi ziren, aulki azpitan, lorontzien atzean eta barruko bazter eta zoko guztietan. Sandokan berak ere, hain ausarta izanik, halako beldurtxoa nabaritu zuen gorputz guztian.

Hainbeste begiratzen ari zirenez gero, estufaz ere konturatu eta begiratuko zuten. Beraz, nahitaezkoa zen haien bisita.

Yañezengana inguratu zen Sandokan. Hau hauts artean ezkutatuta zegoen.

— Ez mugitu —esan zion Sandokanek—. Agian hementxe aurkituko gaituzte.

— Isilik! —esan zion Yañezek—. Eta entzun.

Ahots batek zera zion:

— Hegan egin ote du bada pirata madarikatu horrek?

— Edota lurrazpian ezkutatu ote da bada? —beste batek.

Eta hirugarrengoak:

— Gizon hori edozertarako gauza da. Hori ez da gu bezalako gizona, deabruaren kide baizik.

— Niri ere gauza berbera iruditzen zait —esan zuen lehenengo ahotsak beldurrez—. Behin ikusi nuen eta aski dut. Ez da gizona, tigre bat da. Berrogeita hamar soldaduen kontra bota zen ausarki eta inork ez zuen ukitu ere egin.

— Beldurra ematen didazu, Bon! —besteak.

— Eta nori ez dio beldurra ematen?

— Hemen ez dago, goazen hemendik.

— Poliki, Bob! Horra estufa handi hori. Hor barruan kabituko lirateke bost gizon ere. Hartu karabinak eskuetan eta begira dezagun!

— Iseka egin nahi al diguzu, adiskide? —esan zuen soldadu batek— Nor sartuko da hor barruan? Hor ez dira ipotxak ere kabitzen eta.

— Bueno, ikus dezagun, zer arraio!

Sandokan eta Yañez biek atzera jo zuten, ahal zuten ondoen ezkutatzeko.

Une bat geroago estufaren atea ireki zen. Eta kanpoko argitxoa sartu zen barrura. Baina ez zen oso ondo ikusten. Soldadu batek burua sartu zuen eta usin eginaz berehala atera zuen.

Hautsak eta ikatzak aurpegi guztia beltz-beltza jarri zioten.

— Deabruak eraman dezala estufa hau begiratzeko burutapena izan duena —esan zuen.

— Tontakeria bat da! --erantsi zuen beste batek—. Hemen behintzat ez dugu harrapatuko.

Itxi zuten azkar burdinazko atea eta negutegi hartatik atera ziren. Une batzuetan han egon ziren hizketan. Gero joan ziren, eta ez zen haien arrastorik geratu.

Portugaldarra lasaitu zen ederki asko.

— Mila deabruak batera —esan zuen—. Eskapada ederra egin dugu. Aluak. Burua sartu eta ikusi ez. Hobeia izan da hori. Lepaluzeagoa izan balitz, edota taxuz begiratu balu, erraz aurkituko gintuen. Itsas-zabaleko Ama birjinari kandelaren bat piztu beharko diogu.

— Bai, bai, une larria izan da —erantzun zion Sandokanek—. Buru handi hura nire sudur ondoan ikusi dudanean, ez dakit nola izan dudan geldirik egoteko ausardia.

— Bueno, oraingoz behintzat, libre gara. Bila dezagun jaki piska bat.

— Irten gaitezen, bai, Yañez.

Estufatik irtetzeko gogo bizia zuen portugaldarrak. Ireki zuen burdinazko atea, eta salto emanaz lorontzi baten gainean jarri zen. Ez baitzen ikatz zantzurik uzterik komeni.

Sandokanek ere gauza bera egin zuen. Eta lorontziz lorontzi salto eginaz, ate ondoraino iritsi ziren.

- Ikusten al duzu inor? —galdetu zuen.
- Kanpotik dena ilun dago.
- Goazen, orduan, platano batzuk harrapatzera.

Kanpora atera ziren eta inguruan zeuden platano eta ponbo pila jaso zituzten.

Atzera itzultzera zetozen. Baina bat-batean, zera esaten dio Sandokanek lagunari:

- Itxaron hemen piska bat, Yañez. Soldaduak non dauden ikustera noa.
- Txorakeriarik ez ezazu egin —erantzun zion honek—. Utz itzazu lasai. Zer inporta zaigu hori?
- Ideia bat daukat buruan.
- Joan zaitetz infernura zure ideiekin. Gaur gauean ez dago ideiarik.
- Nork daki —erantzun zion Sandokanek—. Bihar arte egon gabe ere ihes egin dezakegu. Gainera, nire ausentzia oso laburra izango da.

Hartu zuen karabina eta ezpata, eta zuhaitz tartean abiatu zen.

Azkeneko platanoen inguruan zegoenean, urrutian lastargiak begiztatu zituen.

— Badoaz, dirudienez —esan zuen bere golkorako—. Ikus dezagun zer gertatzen den Lord James jaunaren basetxean.

Inguratu eta zuhaitz batzuen ondoan gelditu zen. Bihotzak taupada bizian ekin zion Marianaren leihoan argia ikusi zuenean.

— Ai! Nirekin eraman ahal baneza! —zioen bere golkorako.

Hiruzpalau pauso eman zituen, makurtuta. Ez bait zen inguruan egon zitezkeen soldaduekin fidatzen.

Leihoko argi tartean itzal bat pasa zen. Mariana zen.

Beraz, erabaki eta bazihoan basetxe aldera, ate ondoan, sarreran bertan, gizaseme zelatari bat ikusi zuenean.

— Ikusi ote nau? —galdetu zion bere buruari.

Dudan egon zen une batetan. Berriro ere Marianaren itzala ikusi zuen.

Beraz aurrera abiatzeko prestatu zen. Hamar pauso eman zituenean, zelatariak karabina eskuetan hartu eta oihukatu zuen:

— Nor da? Nor bizi da?

Sandokan tinko geratu zen.

PRESTU NAGO

Gauzak oker jarri ziren. Hain oker ere. Arrisku bizitan, Sandokanek ere ulertu zuen hori. Eta han geratu zen tinko, geldi, landareen atzean.

Zelatariak, ordea, berriro ere oihu bizia bota zuen: —Nor da? Nor da?— Erantzunik ez. Orduan pauso batzuk eraman zituen aurrera. Ia nor ote zen bada sastraka atzean zegoena. Hala dena irudimena ote zen bada? Inguratu eta ez zuen ezer ikusi. Engainatu zelakoan, atzera jo zuen eta ostera ate ondora inguratu. Baina ez zegoen zeharo lasai, eta erne gelditu zen han, nondik edo handik beste zarataren bat entzungo.

Sandokan, berriz, urduri. Bere ekintza aurrera eramateko prest. Baina, astakeria bat zen hura. Eta atzera jotzea hobea izango zela pentsatu zuen. Hala bada, poliki-poliki, sastrakatik sastrakara, zuhaitz atzetik zuhaitz atzera, gordeka alde egin zuen. Beti ere zelatariari begira. Han bait zegoen hura fusila eskuan, disparatzeko erne.

Berehala iritsi zen negutegira, lagunaren ondora.

— Zer ikusi duzu? —galdetu zion Yañezek—. Beldur nintzen zuregatik!

— Gauza onik ez —erantzun zion Sandokanek—. Basetxea zelatariz beteta dago. Jende asko finka zaintzen. Zail izango da gau honetan hemendik irtetzea.

— Orduan, loalditxo bat egitea izango da onena. Ez dut uste berriro honantz etorriko direnik.

— Nork daki hori?

— Zer nahi duzu? Urduri jartzea ala?

- Ez dakit, baina beste soldatu talderen bat pasako balitz, zer?
- Goazen lo egitera. Baina bi begiak irekita. Jar gaitezen lorontzi horien atzean.

Eta hala, Txinako lore batzuen atzean etzan ziren.

Baina ezin baitzuten lorik egin. Agian soldaduak berriro ere etortzen baziren, zer? Noizbehinka jaiki eta kanpora ateratzen ziren.

Egunak argitu zuenean, ingelesak finka guztia aztarrikatzen berriro hasi ziren. Baina gauz baino gogotsuago. Zuhaitzen atzean, laranja ondoen atzean.

Ziur zeuden, azkenean aurkituko zituztela. Ausarti aleenak. Nola bururatu ote zitzaien haiei hesia pasata finka barrura sartzea?

Atera ziren bada kanpora, eta ikusi ere bai gudariak urruti samar. Gosea asetzeko fruta jango zuten. Eta nolako fruta. Malayo tartean bua kadandra izenarekin ezagutzen direnak. Handiak eta urtsuak. Gero, atzera, estufan sartu ziren, baina aurretik ke eta ikatz kondarrak kenduaz.

Estufa lehen ikusi arren, berriro etorri zitezkeen aztertzeraz.

Gosaldu zuten eta barruan geratu ziren, gaua noiz iritsiko zain. Ihes egin behar eta ez zekiten noiz.

Orduak pasa ziren. Bat batean Yañezek hanka hotsak entzun zituen. Ataritik zetozen. Altxa ziren eta hartu zuten eskuan ezpata. Beno, berak kriss deitzen dioten ezpata.

- Berriro ote datoz? —galdetu zuen portugaldarrak.
- Nahastu egingo zinen gizona —erantzun zion Sandokanek.

- Ez, ez. Norbait pasa da bidexka horretatik.
- Bat besterik ez balitz, neroni atera eta preso hartuko nuke.
- Erotuta al zaude, Sandokan?
- Bat harrapatuko bagenu, besteak non dauden esango liguke eta zertan ari diren.
- Bai ote? Engainatu egingo gintuzke txinoak bezala.
- Ez dut gezurretan hasiko litzatekeenik uste. Botako al dugu begiradatxo bat?
- Ez zaitetz gehiegi fida, Sandokan.
- Baina, zerbait egin beharra dago, bada.
- Zure beharrik baldin badut, deituko zaitut.
- Ezer entzun al duzu?
- Ez, nik ez.
- Orduan, zoaz Yañez. Ni hemen egongo naiz zain, kanpora irtetzeko.

Zer entzungo zain geratu zen Yañez.

Oraindik ere ikus zitezkeen zenbait soldadu, bazterrak miatzen, baina arreta handirik gabe. Itxaropena galdu balute bezala.

Beste guztiak, agian, kanpora joango ziren.

— Itxaron dezagun —esan zuen Yañezek—. Egun guztian gure arrastorik aurkitzen ez badute, aldegin dugula pentsatuko dute. Etsiko dute. Orduan, gauez ihes egingo dugu eta basoan barna sartuko gara.

Horretan ari zirela, soldatu bat zetorrela ikusi zuten. Basetxetik barna eta negutokiko bidetik aurrera.

— Ikusi ote nau? —galdetu zion antsiaz bere buruari.

Platanoen atzean gorde zen. Haren orri zabalek babes bikaina egiten baitzioten. Eta poliki-poliki Sandokan zegoen lekuraino iritsi zen. Honek halako ikara aurpegiarekin ikusi zuenean, zera galdetu zion:

— Zer gertatzen da, gizona? Norbait duzu atzetik ala?

— Ikusi egin gaituztela uste dut. Honantz bai dator gudari bat.

— Orduan ez da bera harrapatzea zaila izango —erantzun zion Sandokanek.

— Ezkuta gaitezen platano horien atzean. Inguratzen den bezain laster lotu eta ahoan zapi bat jarriko diogu. Bila ezazu zapiren bat.

— Hemen dago —esan zuen Yañezek—. Baina, arren eta arren, ez egin gero burugabekeriarik.

— Lasai gizona. Mutil horrenak berehala egingo ditugu.

— Eta oihuren bat egiten badu, zer?

— Ez du astirik izango. Hemen dago!

Zuhaitz ondoan zegoen soldadu gaztea. Orduan biak batera, Yañez eta Sandokan, gainean erori zitzaizkion. Azkar eta arin. Baina mutilak oihu latz bat botatzeko haina denbora izan zuen.

— Azkar Yañez —esan zion Sandokanek.

Portugaldarrak gatibua hartu bere gain eta estufa barrura sartu zuen.

Atzetik zetorkion Sandokan. Urduri, ordea. Ez zuen karabina jasotzeko astirik ere izan.

— Arriskutan gaude, Yañez! —esan zuen Sandokanek.

— Ikusi ote gaituzte gizon hau lotzen? —Yañezek zurbil.

— Oihua behintzat entzungo zuten.

— Galdu gara orduan!

— Oraindik ez. Baina lurrean gelditu den karabina hori ikusten badute, segituan etorriko dira lagunaren bila.

— Anaiatxo hori. Ihes egin dezagun hemendik hesi aldera.

— Fusilatuko gaituzte txakurrak bezala. Egon gaitezen hemen geldigeldi, zer gertatzen den ikusi arte. Armatuta daude eta ez digute barkatuko.

— Badatoz, badatoz!

— Lasai, Yañez, lasai!

Baina, arrazoia zuen portugaldarrak. Inguratu berriak ziren zenbait soldadu. Laguna galdu zuten eta ez zekiten ez non ez nola

— Bai —esan zuen batek—. Hemen utzi du bere karabina. Beraz norbaitek harrapatu du.

— Ez dakit bada zer esan —bigarren batek—. Harrituko nintzateke piratak oraindik hemen daudela jakitearekin. Eta are gehiago horrelako ausardia izatearekin. Ez ote da ari gure Barry laguna brometan? Nork bilatuko ote duen jolasean?

— Txorakeriarik ez esan. Ez dira hauek txantxetarako uneak.

— Nik ez dut bada uste ezer gertatu zaionik.

— Bada, nik baietz esango nuke —esan zuen beste batek—. Dudarik gabe pirata horiek izan dira. Eta oraindik hemen daude nonbait. Nork ikusi ditu hesia pasatzen?

— Infernuko deabruak dira horiek. Nik ez dakit non ezkututzen diren.

— Barry...! Barry...! —oihu egin zuen ahots batek—. Non zaude? Txantxetan ari zara ala?

Inork ez zuen erantzun. Pozik erantzungo zuen. Baina mutur lotua zegoen eta Sandokan eta Yañez ondoan.

Orduan kanpoko batek zera esan zuen:

— Ia, zer egiten dugun?

— Bila dezagun! —beste batek.

— Sar gaitezen bada negutegian.

Hori entzun zutenean, larritu ziren bi piratak.

— Zer egin behar dugu? —galdetu zuen Yañezek.

— Zer egin behar dugun...? Txaketa gorri horiei kristoren sorpresa prestatu behar diet. Ikusiko duzu.

Sandokanek gatibuari zera esan zion:

— Eta zu kontuz ibili. Ez egin txorakeriarik. Bestela labainarekin eztarria ebakiko dizut. Gainera, punta pozoitua dauka. Kontuz bada...

Hori esan eta gero, berogailuaren hormak kolpatu zituen.

— A zer sorpresa polita —esan zuen—. Itxaron dezagun etorri arte.

Bitartean, soldaduak barrura sartu eta aztarrika zebiltzan. Lorontzi eta lore tartean, arrastoren bat non aurkituko.

Ez baitzuten ezertxo ere aurkitu. Gero estufa han zegoela konturatu ziren.

— Mila deabru batera —esan zuen eskoziar ahoskera zuen batek—. Agian berogailu horretan ote daude? Kabituz daitezke hor barruan zenbait pertsona eta. Agian hil eta hor gorde dute gure laguna.

— Ikus dezagun! —bigarren batek.

— Poliki ibili, poliki ibili! —oihukatu zuen hirugarrenak—. Hor barruan bat baino gehiago ere kabitzen da eta.

Sandokan prest zegoen, bere bizkar zabalak berogailuaren hormatan tinkatuaz.

— Yañez —esan zion—. Prest al zaude?

— Bai, prest nago.

Berehala berogailuaren ate karranka entzun zen. Irekitzen ari ziren.

Une berean haren horma guztiak, paperezkoak balira bezala apurtuta erori ziren.

— Tigrea, Tigrea —zioten soldaduek oihu bizian. Eta hankaz gora erori ziren eskuin- ezker zaku zaharrak bezala.

Han atera zen Sandokan benetako tigrea, fusila eskuan eta ezpata hortzetan.

Bota zion tiroa aurrean zegoenari. Bi muturrekoz zapaldu zituen beste bi. Eta Yañez atzetik zuela ihes egin z

ERNE, YAÑEZ

Soldadu gizajo haiek sentitu zuten beldurra eta izua ez zen nola nahikoa izan. Ez zuten arma zutenik ere pentsatu.

Susto hartatik suspertu zireneko berandu zen.

Bi itsaslapurrak, korrika bizian ihes egin zuten. Finka barruan tronpeta soinua entzuten zen. Alarma jotzen ari ziren. Baina gure bi gizonak basoan barna galdu ziren, zuhaitz tartean.

Gelditu ziren une batetan, arnasa hartzeko.

Denek ulertu zuten arriskuaren berri. Tigrea barruan zebilen, dudarik gabe. Eta ikusi zuen norbaitek. Denek finkako hesi aldera jo zuten bizkor.

— Berandu zabiltzate, adiskideak, berandu! —esaten zuen Yañezek jarraitzaileei begira—. Zuek baino lehenago iritsiko gara! Izorra zaitezte,

— Bizkor, goazen bizkor! —esaten zion Sandokanek—. Ez diezagutela bidea moztu.

Instantean iritsi ziren hesira. Erbiak baino arinago saltatu eta korrika bizian aurrera jarraitu zuten.

— Ikusten al duzu hor norbait? —galdetu zion Sandokanek.

— Ez da txingurri batik ere ikusten!

— Sar gaitezen bada basoan barna! Han ez gaituzte hain erraz jarraituko. Gure aztarrenak galduko dituzte.

Ondoan zegoen basoa. Bi pausotara. Han ezkutatu ziren bi piratak.

Pixkana-pixkana, ordea, basoa gero eta zailagoa zen.

Alde guztietatik zuhaitza besterik ez baitzegoen. Zuhaitz lodiak, ikaragarriak, beren adarrak bata bestearekin gurutzatzen zirelarik. Zainak berak ere berebizikoak zituzten. Han ezin zen ibili. Enborrak korapilo lodiz beteak zituzten.

Bi itsaslapurrek ezin zuten korrika segi. Zuhaitz eta adar; alferrik zen.

— Nondik goaz, Sandokan? —galdegin zion Yañezek—. Ez dakit nondik pasa ere.

— — Lasai, mutiko, lasai, tximu lanetan hasi gara —erantzun zion Sandokanek.

— Horretan ohituak gaude, bai.

— Eta orain, gainera, ez dugu beste erremediorik.

— Ez al gara galduko?

— Gu Malasiako semeak ez gara behin ere basoan galtzen. Ez dugu iparorratzik beharrik. Odolean dakargun joera aski dugu.

— Sartu ote dira basoan, ingeles alu horiek?

— Ez dakit, Yañez, zaila egingo zaie. Gu ohituak egonik ere, horrela baldin bagabiltza, nola ibil daitezke haiek ohiturarik gabe? Dena dela urrutira gaitezen. Lord jaun horrek izugarritzko txakurrak omen ditu. Haiek, bai, ingura daitezke gu gauden lekuraino.

— Hemen ditugu gure labainak, bada ezpada ere.

— Gizonak baino gaiztoagoak dira animalia horiek. Aurrera Yañez.

Jarraitu zuten aurrera sastraka tartean, zuhaitz eta zikin tartean, tximuak berak baino arinago.

Igo bezala jaisten ziren, noiz adarretan, noiz zainetan, landaretza ito eta lodi haren gainetik, azpitik, nonahitik.

Bostehunen bat metro egin zituzten horrela. Alditan, alditan, bazirudien adar gainetatik amildu behar zutela. Baina ez zen halakorik gertatu.

— Ba al dakizu zer pentsatzen dudan?—esan zion portugaldarrak— Zera pentsatzen dut: zorte latza izan dugula larrua salbatu dugunean. Zortziren bat gudarien tartetik ihes egitea, mirari bat iruditzen zait oraindik ere.

— Bai, bai, niri ere hala iruditzen zait —erantzun zion Sandokanek irribarrez.

— Ba ote daki zure neskak ihes egin duzula?

— Uste dut baietz.

— Baina beldur naiz, Lord jauna larritu eta ez ote den Victoria aldera joango, leku seguruago baten bila.

— Hala uste al duzu? —galdetu zion Sandokanek aurpegia ilun-ilun jarriarik.

— Ez dut uste gu hain inguruan egonda, seguru sentituko denik.

— Egia da Yañez, egia da hori! Bila ditzagun gure mutilak.

— Ailegatu ote dira?

— Errekastoaren ahoan bilatuko ditugula iruditzen zait.

Zoritxarren bat izan ez badute behintzat! .. — Ez izan hain ezkorra, motel. Laster jakingo dugu.

— Eta gero, zer egingo dugu? Kinta hau eraso ala?

— Ikusiko dugu orduan.

Sandokan, nahi al duzu aholku on bat ematea?

— Zer aholku, Yañez?

— Kinta delako hori erasotzea baino hobe izango dugu Lord atera zain egotea. Laster irtengo dela iruditzen baitzait.

— Eta zer egingo dugu? Bere eskolta eraso ?

— Noski, baietz. Baso tartean. Basetxe hori apurtzea, oso arriskutsua izan daitekeela iruditzen zait.

— Ez da aholku txarra, ez.

Orain ordea, lagunak etorri ziren ala ez jakin beharra zegoen. Beldur zen Yañez. Halako ekaitz gogorra izan baitzen egun haietako.

Egarri zirenez gero, bua-mamplam izeneko fruituak jan zituzten ase arte. Gero, adarrei itsatsiaz, behera jaitsi ziren tximuak bezala.

Baina ez baitzen hain erraz basotik irtetzea. Bazirudien noizbehinka zuhaitzak bide, bidexkaren bati tokia uzten ziotela. Berehala, ordea dena trinkotzen zen. Ez zen hain erraz handik kanporatzea.

Sandokan bera ere galdua zebilen. Ez zekien ze alderditara jo, errekastora iristeko.

— Larritasun batean aurkitzen gara, Yañez —esan zion Sandokanek—. Ez dakit nondik jo behar dugun. Galduak gaude. Dena dela, begiratu horra. Horko belar luze horiek. Badirudi, garai batetan bide izan zela. Agian hortik jotzen badugu...

— Zer izan da hori? Zaunka bat?

— Bai, bada, zaunka bat izan da —erantzun zion besteak.

— Beraz, Lord jaunaren zakurrak gure aztarrena aurkitu dute. Zerri aleenak.

— Harrapatu gaituzte ia-ia! Entzun berriro!

Urrutian, berriro ere, zakur zaunka entzun ahal izan zen. Zakurren bat zetorren baso itsu eta bete hartatik barna. Haiengana, dudarik gabe.

— Zakurra bakarrik ote dator, ala berarekin batera norbait ere bai? —galdetu zuen Yañezek.

— Agian beste zakurren bat ere etorri da. Soldaduek ez lukete hemen asmatuko.

— Igo gaitezen pombo zuhaitz horren gainera. Han seguruago egongo gara.

Igo ziren zuhaitzera, finkatu ziren behar bezala eta etsaia etorri zain gelditu ziren.

Aberea azkar zetorren. Adar eta hostoen tartetik, bidean karraska-karraska eginaz. Noizbehinka zaunka beldurgarri bat botatzen zuen.

Zirudienez, bi gizonen oinatzak bilatu eta atzetik zetorren.

Bere atzetik, agian, bertako batzuk ere etor zitezkeen. Baina ez zen gauza segurua.

--Ikusi, ikusi! -esan zuen Yañezek.

Zakur handi eta beltz bat zen. Izugarrizko matrail hezurra zuen, eta hortzak handi eta zorrotzak. Esklabu iheslariak harrapatzeko erabiltzen zituzten horietako zakurra.

Ikusi zituen bi piratak. Une batean geldi-geldi begiratu zien, begi gorri eta odolduekin. Txingarrak ziruditen. Abiatu zen oster, zain gainetatik saltoak emanaz, leoinabarra gaizto bat balitz bezala eta ikaragarritzko orroa botaz.

Belauniko jarri zen Sandokan, eta gerrian zeraman ezpata, kriss delakoa, zuzen-zuzen jarri zuen horizontalki. Yanezek, berriz, heldu zion bi eskuekin eskopetari kainoietatik borra bat balitz bezala astintzeko

Beste jauzi bat eman zuen animaliak eta Sandokanen gainera erori zen basatiro. Eztarria harrapatu nahi zion.

Animalia hura basatia baldin bazen, Malasiako Tigrea ez zen gutxiago. Eta hantxe sartu zion kriss izeneko ezpata, eztarritik barna, ipurtzuloraino. Une berean, Yañezek kristoren kolpea eman zion buruhezurrean. Zakur gajoa hankaz gora gelditu zen.

Une berean ordea, beste orro berezi bat entzun ahal izan zuten. Zezen basati bat edo honelako zerbait zirudien.

— Erne, Yañez! —esan zion Sandokanek—. Oraindik ez dira arriskuak bukatu. Mias izeneko animalia baten orroa da hori.

—Mias deitu diozu? Ederki. Bada, ez da arrisku bakarra.

— Zer diozu?

— Begira ezazu hara errekatxo hartara. Adar haren ondora.

Begiratu zuen Sandokanek.

— Arraio zaharra! —oihu egin zuen beldurrik gabe. Alde batetik mias bat azaldu zaigu bestetik harimanbiutang bat. Biak zein baino zein basatiagoak. Ikus dezagun bada, zer gertatzen den. Gauza ote diren gure bidea mozteko. Ikus dezagun! Prestatu adiskide fusilak.

BORROKA HILGARRIA

Hara bada gure aurrean bi etsai, zein baino zein gaiztoagoak eta indartsuagoak. Baina ez zuten gizonen aurka jokatzeko asmorik zutenik. Bata besteari begira zegoen. Erasotzeko prest.

Sandokanek harimanbiutang deitu zion animalia pantera eder-eder bat zen. Bestea berriz, orangutan ikaragarri bat. Orain ere badaude halako animaliak Borneo aldean.

Bazirudien pantera horrek ikaragarritzko zuela. Beraz, orangutan hori, ikusi zuenean, adar lodi baten gainera igo zen, erasoia zuzen eta zehatz botatzeko.

Tximuaren gorputza ikaragarria zen. Beso, hanka eta abar, zain korapilotsu eta indartsuak nabari zitezkeen. Zuhaitz gainetan egon ohi dira, adar eta hostoekin egindako kabi antzekoetan.

Ez zaie gizona atsegin. Ezta beste animaliak ere. Nahiago dute bakarrik egon. Baina, erne, ze zirikatuz gero, haserre bizian jartzen baitira eta beldurgarri bihurtzen dira.

Tximu hura, errekaen beste aldetik zegoen. Eta hasieran lasai zegoela zirudien. Fruta jasotzeko asmotan edo zebilen. Harritu egin zen, bere etsaia, pantera hori, begiz jo zuenean. Hasieran ez zion halako garrantzirik eman. Gero ordea, heste barruetatik marru latza bota zuen. Haserre daudenean botatzen dituztena bezalakoa.

— Borroka ikaragarri bat ikustera goaz, esan zuen Yañezek mugimendu txikienik ere egin gabe.

— Ez dirudi, oraingo gure kontra etorriko direnik —erantzun zuen Sandokanek—. Oraingo libre gara.

- Begira, begira! Pantera urduri jartzen ari da.
- Tximuak ere ez dirudi lasai dagoenik. Hautsiko dizkio besteari saihets hezurak.
- Prestatu fusila, Sandokan, badaezpada ere.
- Lasai, lasai, prest nago noiznahi disparatzeko eta.

Une berean marru ikaragarri batek urratu isiltasun hura.

Tximua gero eta haserreago jartzen ari zen, pantera, berriz, adar gainean zain eta zain. Ez baizen erasotzera ausartzen. Tximuak bere bularrari danbateko handi bat eman zion. Danbor batek baino zarata handiagoa atera zuen.

Ikaragarriak ziren haren hortzak. Aurpegia erre bizian, ikara bizia sortzeko adinakoa.

Inguratu zitzaion panterari. Hau bere lau hanketan bil-bil, saltoa emateko zain. Baina presarik gabe.

Tximua uretan sartu zen. Gero luzatu zuen besoa eta heldu zion pantera jarrita zegoen adarrari. Astindu zuen gogor. Adarra bera ia kraskatu zuen. Panteraren atzaparrak adarrean tinkatuak zeuden. Hala ere, uretara erori zen.

Tximistak jo balu bezala mugitu zen. Eta berriro bat-batean, beste salto bat emanaz, berriro adarrera igo.

Ez ordea luzerarako. Ze, jarri zizkion tximuari bere begi odolduak eta ikaragarritzko bizitasunarekin bere gainera erori baitzen. Bere atzaparrak, orangutan horren bizkarra eta saihets hezurak urratu zituzten, odolatan jartzeraino.

Tximuak min oihu latza bota zuen. Inguruko errekako ura odolez gorritzeraino.

Ezertarako denborarik eman gabe, atzera adarrera salto eman zuen panterak. Pozik bait zegoen lehenengo erasoaldian lortu zuen ondorioagatik. Tximua, ordea, ez zegoen lo. Panterak salto eman bezain laster, bota zuen bere beso luzea. Panteraren aurreko hankak adarrean kokatu ziren. Tximuaren besoak ordea, buztanetik heldu zion. Eta bertan gerarazi zuen. Hainbeste estutu zion, ze panterak ikaragarritzko oihu mingarri bat bota baitzuen.

— Pantera gaixoa —esan zuen Yañezek, borroka hura ikustean.

— Galdu da —Sandokanek—. Ez badu buztana askatzen, hortxe bukatuko dira bere egunak.

Eta hala izan zen.

Tximua odoldua zegoen. Zauri ikaragarriekin, baina indar betean. Isatsa askatu gabe, saltatu zuen adarrera panterari aurpegia emanaz. Tinkatu zituen bere hankak. Batu zituen indar guztiak. Gero jostailu bat balitz bezala, altxa zuen. Onda balitz bezala, erein zion, mila jira-buelta emanaz. Eta... zart! enbor lodiaren kontra jo zuen.

Kraskateko ikaragarria entzun zen. Askatu zuen isatsetik eta animalia gajoa, zeharo deseginda urpean galdu zen.

— Alu alua, hori duk hori eman dion kolpea! —esan zuen Yañezek— Azkar desegin dik!

— Orangutanak beti irabazten du borrokan. Basoko animalia guztiei irabazten die.

— Ez ote da orain gure kontra etorriko?

- Ikusiko bagintu, ez dut uste barkatuko gintuztekeenik.
- Itxarongo al dugu, aldegin arte?
- Ordu luzeak egon beharko dugu orduan!
- Zergatik? Ez du hemen zereginik eta.
- Begira han gora. Zuhaitz horren gainera.

Hori izango da, noski, tximu haundi honen habia. Hala dirudi behintzat.

- Orduan, abia gaitezen.
- Baita zera ere. Ingurune haundiegia eman beharko genuke.
- Ez dugu bada beste biderik. Tirokatu dezagun tximu handi-mandi hori. Eta gurutzatu dezagun erreka-stoa.

Poliki-poliki eta inongo zaratarik egin gabe, erreka-aren ur bazterrera inguratu eta adar baten atzean ezkutatu ziren. Zarbasta ugari zegoen inguruan. Beren tirotan huts egiten bazuten ere, nolabait defentsaren bat behar zutela eta, hura iruditu zitzaaien lekurik egokiena.

Kokatu zituzten ukalondoak adar zuzen batetan. Tiroak egokiago eta zehatzago joan zitezten. Bat batean, ordea, tximuak izugarritzko kolpe latz bat eman zion bere bularrari. Haserre seinalea zen, inondik ere. Zutik jarri eta hortzak estutu zituen.

- Zer gertatzen zaio horri —galdetu zuen Yañezek—. Ikusi ote gaitu bada?
- Ez, ez dut uste —erantzun zion Sandokanek—. Beste animalia-aren bat begiztatuko zuen.

- Beste animaliairen bat? Bai ote?
- Egon isilik, egon isilik! Ikusi nola mugitzen diren adarrak!
- Arraio zaharra, ingelesak ote dira bada?
- Isildu Yañez, isildu!

Altxa zen Sandokan. Kontuz eta urduri. Beste aldera begiratu zuen. Orangutan handia zegoen leku aldera.

Aiba... norbait zetorren isilean-misilean, adarrak alderatuaz, poliki-poliki. Tximua ere konturatu zen. Beregana baitzetorren zuzen-zuzen nor hori... Eta tximua isil-isilik, zurbil egin da. Inongo zaratarik egin gabe. Arnas hotsa besterik ez zitzaion entzuten.

- Zer, zer gertatzen da? —galde egin zion Yañezek Sandokani.
- Norbait dator tximu madarikatu horren ingurura. Zuzen zuzenean, gainera.
- A ze txolina! Zer da ordea, gizona ala aberea?
- Ez dakit ziur. Ez baitut ikusten.
- Eta indiarren bat balitz zer?
- Hemen gaude gu, ez diogu tximuari hura desegiten utziko. Egon, egon, oraintxe ikusten dut. Esku bat azaldu da.
- Zuria ala beltza?
- Beltza, Yañez. Begiratu iezaiozu orangutan alu horri!
- Lasai, prest nago eta!

Une hartan, altxa zen orangutana. Ikaragarritzko marru latza bota eta desegin zituen inguruan zituen adar eta ostoak. Haien atzetik gizaseme bat azaldu zen. Haren kontra erortzera zihoan.

Une berean, ordea, bi tiro entzun ziren. Bata bestearen ondoren. Hain zuzen, Sandokan eta Yañez, biek, tiro bana bota zioten orangutan hari.

Bizkar erdian jo zuten bi tiroek. Orangutan hura zeharo zauritu zuten. Ahaztu zitzaion ondoan zeukan gizajoa eta bi piratei begira jarri zen. Haren amorrua ez zen nolana hikoia. Errekastora salto egin zuen, bi gizon haiek erasotzeko asmoz. Yañez ordea, berriro fusila kargatzen hasi zen. Korrika eta presaka.

Sandokanek ez. Utzi zuen alde batera fusila eta hartu zuen eskuetan ezpata, kriss deitzen zaion ezpata. Han zetorkion orangutan ikaragarria. Su garretan. Igo zen beste adar batera, Sandokanengana iristeko asmoz. Eta luzatu zuen bere atzapar ikaragarria. Beste ur bazterretik oihu indartsu bat entzun zen:

— Kapitana, kapitana!

Eta danba tiro soinua segidan.

Ez zion orangutan handiari bere atzaparra zeharo luzatzeko denborarik eman. Altxa zituen bi besoak bururaino.

Begiratu zion zorrozki. Sandokani eta... plast uretara erori zen zerraldo.

Une berean oihuka eta garrasika hasi zen etorri berria:

— Kapitain jauna! Yañez! Kaixo, kaixo... Hau poza! Hemen al zaudete? Hemen al zaudete?

Yañez eta Sandokan harri eta zur geratu ziren:

- Paranoa! Paranoa! —biek batera pozik.
 - Bai, bai, Paranoa naiz. Hainbeste harritzen al zarete?
 - Zer egiten duzu baso honetan? —galdetu zion Sandokanek.
 - Zure bila nebilen, kapitan jauna.
 - Eta nola zenekien ni hemen nengoela?
 - Hor ibili naiz batetik bestera. Zenbait ingeles aurkitu dut bazterrak aztarrika. Eta zure bila dabilzala iruditu zait.
 - Nola ausartu zara hemen barrura sartzen? —Yañezek.
 - Ze ba...? Ni ez naiz, gero, abereen beldur!
 - Ezetz? Bada, hor nonbait eta txiki-mila puska egingo zintuen orangutan horrek.
 - Beno, beno, kontuz. Oraindik behintzat ez ninduen harrapatu eta.
- Ez al duzue ikusi nola desegin diodan bere bizkarra tiro batez ala?
- Eta zer, etorri al dira itsasontziak? —galdetu zuen Sandokanek.
 - Zuen bila abiatu nintzenean, nirea besterik ez zen ailegatu.
 - Besterik ez, arraioa! —erantzun zuen Sandokanek urduri.
 - Ez, kapitan jauna, besterik ez.

- Noiz urrutiratu zara erreka ondotik?
- Atzo goizean.
- Zerbait gertatu ote zaie bada beste itsasontziei? —komentatu zuen Yañezek.
- Agian, ekaitz madarikatu horrek iparraldera bultzako zituen — Sandokanek.
- Agian bai —erantzun zion Paranoak—. Kristoren haizea baitzegoen. Nork kontra eutsi zezakeen hura? Nik neuk nahiko zortea izan nuen. Ze, badia batetara sartu bainintzen. Eta itsasoa baretu denean, erraza izan zait inguratzea. Esan dudanez, atzo goizean lurrartu nuen. Dena dela, dagoeneko agian etorri dira besteak ere.
- Abia gaitzen! —esan zuen Sandokanek gogoz.
- Badiara iristeko irrikaz zaude, ezta?
- Bai, Yañez. Bai. Hori da nire beldurra.
- Arranopola! Hori ez litzateke edozer gauza izango.
- Eta hala baldin bada, zer egin dezakegu, zer? E, Sandokan?
- Zer egin dezakegun, zer? Eta zuk galdetzen didazu hori? Zuk badakizu, ni ez nautela zoritxarrak menderatzen. Borrokan jarraituko dugu. Berdin-berdin. Etsaiak ezpata azaltzen badu, guk gurea erakutsiko diegu. Sutzen bagaituzte, guk ere haiek sutuko ditugu.
- Pentsa ezazu gero, nire itsasontzian berrogei gizon besterik ez dagoela.
- Eta zer? Berrogei bai, berrogei. Berrogei tigre, berrogei basakatu.

Gu aurretik garela, nork menderatuko gaitu?

— Zer nahi duzu. Kinta eraso ala?

— Ikusiko dugu. Ikusiko dugu. Gauza bat esango dizuet. Eta hau da: ez naizela Victoria deritzaion uharte honetatik aterako nire Mariana Guillon nirekin eraman gabe. Bere gain egon daiteke Mompracem galtzea ala ez. Gure izarra itzaltzen ari da, Yañez. Eta ezin dugu utzi. Berrito indarberritu behar dugu. Ai neska horrek nahiko balu! Mompracem alderdiaren etorkizuna bere eskuetan egon daiteke.

— Bere eskuetan eta zuretan ere bai, Sandokan —esan zion Yañezek—. Orain, dena dela, utzi ditzagun gure buruhaustek eta iritsi gaitezen errekatxora. Ea ailegatu diren beste itsasontziak.

— Goazen bai —esan zuen Sandokanek.

Eta abiatu ziren biziki. Paranoa aurretik, besteak atzetik. Bide zail bat zen.

Ez zen erraza aurreratzea, baina hainbestean bazihoazen aurrera.

Bost orduko bidaldia egin zuten. Zaila eta neketsua. Noizbehinka arnas hartzeko geratzen ziren. Ilunabarra zen errekatxoaren ingurura ailegatu zirenean. Sartalderantz jo zuten, ez baitzuten etsairik ikusi.

Badiara iritsi zireneko gau betea zen.

Paranoa eta Sandokan lur bazterrerraino joan ziren. Ahal zuten urrutiena. Urrutian zer edo zer ikusteko itxaropena baitzuten.

— Ikusi, ikusi, kapitan jauna —esan zion Paranoak—. Han urrutian. Puntu argitsu txiki bat. Izar bat balitz bezala.

— Zer da, zer da? Agian gure itsasontziren argia? —Sandokanek.

- Bai jauna, bai. Ez al duzu ikusten hegoaldera datorrela?
- Eta zer seinale egin behar diogu honantz ingura dadin?
- Piztu itzazue ur bazterrean bi sutzar —esan zuen Paranoak.
- Goazen bada, penintsularen puntaraino —esan zuen Yañezek. Handik garbiago adieraziko diogu bide egokia.

Bide nahasi batetik aurrera jo zuten. Oskoldunez eta arriskuz betetako leku zail batetik aurrera. Zuhaitzez betetako uharte bateraino iritsi ziren.

— Piztu dezagun hemen sua —esan zuen Yañezek—. Honela ondo aurkituko du itsasontziak erreka honen ahoa.

— Gero ordea, errekastotik gora igoaraziko dugu —erantzun zion Sandokanek—. Ez nuke nahi ingelesak begiz jotzea.

— Egon lasai —Yañezek—. Aintzira barruan ezkutatuko dugu, kainabera tartean. Han dagoenean adarrez eta hostoz disimulatuko dugu.

— Ale, Paranoa, egin ezazu seinalea!

Ez zuen malasiarrak denborarik alferrik galdu. Hartu zituen bazterretatik adar eta adaska lehorrak. Bi su meta egin eta su eman zien.

Urbazterretik begira-begira zeuden. Eta hara, itsasontziko argi txuria ezkutatu eta gorria azaldu zen.

— Ikusi gaituzte, ikusi gaituzte —esan zuen Paranoak—. Itzal ditzazkegu sutzarrak.

— Ez, ez —erantzun zion Sandokanek—. Oraindik ere su horiek badute zeregina. Zure gizon horiek ez dute badia hau ezagutzen, ezta?

— Ez, kapitain jauna.

— Beraz, gida ditzagun.

Urduri zeuden hiru itsaslapurrak farol gorriari begira. Hamar minutu geroago ikus zitekeen inguratzen ari zela. Bere oihal handiak, zabal zabalik eta itsasoko olatuek brankaren aurka jotzean danbateko soinua ateratzen zuten. Itsasoan labaintzen zen txori handi bat zirudien itsasontziak gau ilun hartan ikusita.

Maniobra pare batetan badiara sartu eta errekatxoaren aho aldera jo zuen zuzenki.

Hiru itsaslapurrek uhartea utzi eta korrika bizian inguratu zitzaizkien.

Bota zituen aingurak kainaz betetako ingurune batetan. Berehala inguratu zen Sandokan.

Sandokanek isiltzeko agindu zien itsaslapurrei, ze hauek prest baitzeuden Agur zaratatsu bat egiteko. Eta zera esan zien:

— Agian inguruan dabilta gure etsaiak, eta isil isilik egotea komeni zaigu. Ez nuke nire asmoak pikutara joaterik nahi.

Gero, ontziko bigarren buruari hunkiduraz beteta, zera galdetu zion:

— Eta besteak?

— Ez dira etorri —erantzun zion honek—. Paranoa jaitsi denean, itsas bazter guztia begiztatu dut. Borneoraino iritsi gara. Ez dut gure ontzien arrastorik aurkitu.

--Eta orduan, zer? Zer iruditzen zaizu zuri?

Pirata, ordea, kezkatan jarri zen. Ez baitzekien zer erantzun.

— Zer? Esan ezazu zerbait —esan zion Sandokanek.

— Nire iritzia, ez da alaia: nire iritzian gure beste ontziak, kostaren kontra triskatu eta ur azpira joan dira. Hori da, hain zuzen, nire iritzia.

— Zugan dut nire konfiantza, Yañez.

— Ezin dugu gure itsasontzi hau hemen utzi. Edozeinek aurki dezake. Edozein ehiztarik.

— Hori guztia pentsatu dut nik, Sandokan. Paranoari agindu diot zer egin behar duen. Etorri Sandokan. Jan dezagun mokadu bat eta oheratu gaitzen. Nik ezin dut gehiago.

Berehala Paranoa eta bere mutilak desmuntatu zituzten itsasontziaren zenbait gauza: oihalak, masta eta abar. Yañez eta Sandokan bodegara jaitsi ziren gosea asetzera.

Bapo janda gero, literatan etzan ziren. Hainbesteko lo gurea baitzuten. Yañezek segituan hartu zuen lo. Ez ordea Sandokanek. Ezin zuen.

Orduak egon zen etorri ez ziren ontzi eta mutiletan pentsatzen. Non ote zebiltzan. Goizaldera lo kuluxka egin zuen. Motza ordea.

Gainaldera, azalera igo zenerako zeharo disimulatua zegoen itsasontzia. Adar eta hostoz estalia. Beraz, edozein barku edo ehiztari inguratzen bazen ere, ezin zezakeen hura aurkitu. Itsasontzia aintziratxo batean zegoen. Baso ilun eta bete batean.

Mastak, oihalak, dena ezkutatua zegoen. Adar, hosto, zarbasta eta abar. Inork ezin zezakeen asmatu han azpian ontzi bat estalita egon zitekeenik. Ezta gutxiagorik ere. Gauza naturala zirudien.

— Aizu, Sandokan —galdetu zion Yañezek—. Zer iruditzen zaizu hau? Ederki, ezta?

— Primeran, ez nuen uste hain trebeak zinetenik. Ezin da ontzia hobeto disimulatu.

— Bada, orain, zatoz nirekin.

— Nora?

— Lehorrera. Zatoz nirekin. Hogeiren bat gizon gure zain daude.

— Zer asmo dituzu Yañez?

— Gero esango dizut. Lasai, Eta zuek —esan zien gainaldean zeuden piratei—, bota ezazue txalupa eta ondo begiratu.

Errekatxoa pasata gero, adar arte bete batetara zuzendu zuen Yañezek Sandokan. Han zeuden hogeit hamar gizon ezkutatuak, eta hortzetaraino armatuak.

Paranoa eta buru ordeko zen Ikant ere han zeuden.

— Denok al zaudete? —galdetu zuen Yañezek. Orduan, entzuniezadazue arretaz —jarraitu zuen portugaldarrak—. Zu, Ikant, itzul zaitetz itsasontzira. Zerbaiten berri duzunean bidal ezazu norbait. Badakizu zuk bidal dezakezun gizon horren mendean beste bat egongo dela. Horrela kate bat osatuko dugu. Guk gure aginduak bidaliko dizkizugu, eta unerik galdu gabe bete behar dira. Kontuz ibili txaketa gorridunekin. Ez zaitzatela harrapa. Era horretan, badakizu, bata bestearengandik

urruti egon arren, bai zuk gu, bai guk zu informatu zaitzakegu instante batean.

— Nirekin kontatu —Yañez jauna.

— Zoaz, bada, itsasontzira, eta zelatatu arretaz.

Buru ordekoa, taldetxo batekin igo zen txalupara. Eta berriro ere errekatxoan gora abiatu zen.

— Nora garamatzazu? —galdetu zion Sandokanek—. Ez dut ezer ere ulertzen.

— Egon pixka bat, adiskide. Egon lasai. Aurretik, ordea, esan iezadazu ze distantzia dagoen itsasoatik Lord Guillon jaunaren finkara.

— Zuzen zuzenean, bi kilometro edo...

— Orduan, badugu nahiko gizon.

— Baina, Yañez, zer egin behar duzu? Zer?

— Esan dizut pazientzia hartzeko, Sandokan.

Iparorratza eskuetan zuelarik, basoan barna abiatu zen.

Laurehun bat metro ibili zituzten. Gero gerarazi zituen bere gizonak zuhaitz lodi baten enbor ondoan. Marinel bati zera esan zion:

— Zu hemen gelditu, egin ezazu bordatxo bat eta egon lasai, gure aginduen berri jakin arte. Badakizu hemendik laurehun metrora dagoela erreka. Sortaldera, eta distantzia berean beste gizon bat egongo da, badakizu. Ontzitik etor daitekeen edozein agindu, zure ingurunean dagoenari emango diozu. Ulertu al duzu?

— Bai. Yañez jauna. Bai.

Han geratu zen malasiarra txabolatxo bat egiten. Inguruan adar eta hosto asko zegoenez, ez zen hain lan zaila. Taldeak berriro aurrera jo zuen. Esandako distantzian beste gizon bat gelditu zen.

— Orain ulertzen al duzu? —galdetu zion Yañezek Sandokani.

— Bai, bai, orain ulertzen dut. Harrigarria zara. Zelatari kate honen bidez, erraz jakingo dugu itsasontziko berri, edota berak finka inguruko berri.

— Hori da, hori. Une batetan bidal diezaiokegu Ikanti, ordena bat. Edota itsasontzia prestatzeko, armatzeko, edo ospa egiteko. Edota guri laguntzera etortzeko eta abar...

— Eta guk, non jarriko dugu kanpamendua?

— Victoriara doan bideska ondoan. Handik erraz zelatatuko dugu Lord jaunaren etxea. Nor atera, nor sartu, ondo ikusiko dugu. Halako batetan, ihes egitea erabakiko balu, gurekin kontatu beharko luke. Hemen egongo lirateke gure tigre hauek, gure basa mutilak.

— Eta Lord jaunak ihes egitea pentsatuko balu, zer?

— Arraioa! Ez dugu bakean utziko. Bere etxe hori erasoko dugu amorru biziz, neskatxa hori gure eskuetan harrapatu arte.

— Ibil gaitezen kontuz, Yañez. Ez dut uste hainbesteren beharrik izango denik. Gauza da alu hori neska bera hiltzeko eta...

— Ez al du halakorik egingo madarikatuak!

— Gizon hori edozer gauza egiteko prest dago, Yañez.

— Bai? Orduan zuhur jokatu beharko dugu. Oso zuhur ere.

Baso ertzeraino iritsi ziren. Beste aldetik belaze zabal eder eta berde bat ikus zitekeen. Eta ingurutan sastraka, zikinkeria ugari. Bidexka bat ere nabari zitekeen. Bidexka edo garai batetan hala izandakoa behintzat. Baina ez zirudien jende askorik ibiltzen zenik. Ze belar luze eta trinkoz josia baitzegoen.

— Hau al da Victoria aldera garamatzen bidexka? —galdetu zion Yañezek Sandokani.

— Bai, hauxe da —erantzun zion piratak.

— Orduan, ez da finka hori urruti egongo.

— Ikusi zuhaitz haien atzean. Hesi mutur bat ikus daiteke.

— Hala da bai! —erantzun zion Yañezek.

Gero Paranoa adiskideari begiratu zion, zeina sei lagun inguruan zituela baitzegoen.

— Zoaz baso ertzera, eta jarri denda estalian eta ezkutuan.

Ez zuen hark beste agindu beharrik.

Laster aurkitu zuen honek gustuko txoko bat. Han zabaldu zuen denda. Ingurua sastraka, adar eta hostoz disimulatu zuen.

Barruan gorde zituen janari guztiak: kontserba latak, bakailaoa, haragi gatzatua, bizkotxoak eta nola ez, ardo botila batzuk ere.

Hori egin eta gero lagun guztiei agindu zien:

— Begiratu ingurura ea inork zelatatzen gaituen.

Sandokan eta Yañezek aurrera jo zuten. Ausarti finka aldera. Hesiraino iritsi ere bai. Gero atzera jo eta denda disimulatuan babestu ziren.

— Pozik al zaude pentsatu dudanarekin? —galdetu zion Yañezek.

— Nola ez bada? —Sandokanek.

— Ondo gaude hemen. Finka inguruan. Madarikatu horrek ihes egin nahi balu, gure fusilen ingurutik pasa beharko luke. Eta une batean behar izanaz gero, gure mutilak ere bildu ditzazkegu ordu erdi batean. Ez dadila mugitu, bestela triskatuko dugu eta.

— Bai, bai —erantzun zuen Sandokanek—. Gai nintzateke nire mutilekin edozeinen aurka jokatzeko.

— Orain, jan dezagun... Hainbeste ibili eta gosetu bainaiz ni...

Hamaiketakoa egin eta zigarroa piztu zuten. Garai onena ez izan arren, whisky botila bati ere kaixo bikaina esan zioten. Halako batean hara nondik azaltzen den Paranoa korrika eta larri.

— Zer gertatzen da, zer? —galdegin zion Sandokanek fusila hartuta.

— Norbait datorkigu ingurura. Zaldi trosta entzun dut. Victoria aldera doan ingeles bat ote da bada?

— Ez, jauna, ez dut uste. Handik datorrela uste dut.

— Urruti al dago? —Yañezek.

— Hala uste dut.

— Etorri Sandokan!

Eskopetak hartu eta sastraka eta adar tartean ezkutatu ziren. Beste sei lagun ere bai.

Bidera jo zuen Sandokanek. Belarria lurrean jarri eta garbi antzeman zion zaldiaren trostari.

— Bai, bai —esan zuen altxatuta—ingurura datorren zaldunen bat da.

— Hobe duzu ezer egin gabe pasatzean uztea —adierazi zion Yañezek.

— Utzi pasatzen? Ezta pentsatu ere! Gatibu bezala hartuko dugu.

— Zergatik, ordea?

— Agian mezu garrantzitsuren bat darama berarekin.

— Bada, erasotzen badugu, tiroren bat bota dezake eta finkako norbaitek entzun ere bai.

— Ez diogu tirorik botatzeko astirik emango.

— Hori zail samarra izango da, Sandokan.

— Ez dut uste hain zaila izango denik. Ikusiko duzu...

— Nola, nola?

— Zaldia trostan dator. Guk hemen trabaren bat disimulatua jartzen badiogu, zaldia ez du pasako. Lurrera eroriko da zalduna eta guk katez lotu eta mutur lotuko dugu.

— Eta zer traba jarri behar diozu?

- Etorri, Paranoa. Etorri. Ekarri soka bat. Azkar.
- Orain, orain —esan zion Yañezek—. Ideia bikaina da. Har dezagun gatibu bat, Sandokan.
- Barre egiten al duzu?
- Arrazoiarekin gainera, Sandokan. Ikusiko duzu zer ederki aterako den. Lord jaunari ederki joko diogu adarra.

Paranoak zabaldu soka eta belar tartean tinkatu zuen. Alderik alde. Belar tartean, ikus ez zedin.

Gero bera, sasi baten atzean gorde zen. Besteak borobilean zabaldu ziren. Traba pasatzen bazuen ere, ihesik egin ez zezan.

— Hemen dago, hemen dago! —esan zuen Sandokanek, zeina Yañezekin batera ezkutatu bait zen.

Bat batean zuhaitz tartetik azaldu zen zalduna. Trosta bizian. Hogeita bi, hogeitahiru inguruko gazte bat, indio jantziz hornitua. Urduri eta egonezin zegoela zirudien, ze zaldia gogor ezproinatzen baitzuen. Ingurura errezeloz betetako begirapenak botatzen zituen.

— Erne, Yañez —marmartu zuen Sandokanek.

Gazte hura soka zegoen leku berera zihoan izugarritzko abiaduran. Eta hara, jotzen du soka eta han joan ziren zaldi eta zaldun hankaz gora. Oraindik ere zaldipetik irten gabe zegoela inguratu zitzaion Sandokan eta ezpata kendu zion gerritik. Altxa zen, baina Juioko zeritzaion pirata batek kolpe batez lurrera bota zuen berriro eta esan:

- Ez txorakeriak egin eta ez aurka jarri, bestela bizia moztuko dizut.
- Alu miserableak! —esan zuen soldaduak.

Juioko eta beste bi piraten tartean lotu zuten goitik beheraino. Gero baso trinkoan barruratu zuten. Zaldiari begiratu zioten, agian erorketa hartan hankarik hautsi zuen ala ez aztertzeko.

— Hau da bestea! —oihu egin zuen Yañezek pozik—. Orain bai harro ibiliko naizela kinta horren barruan. Sarjento graduazioa nireganatu nahi dut.

Lotu zuten bada zaldia zuhaitz batera. Bitartean Sandokan Sarjento gaztea aztarrikatzen ari zen.

— Zer? Ezer ez? —galdetu zion besteak.

— Ez diot eskutizik aurkitzen.

— Gutxienez hitz egin dezala.

— Hitz egin, hitz egin? Ez dut hitz egingo —erantzun zien sarjentoak.

— Nora zindoazen?

— Paseatzen nebilen.

— Hitz egin ezazu!

— Hitz egin dut —erantzun zuen sarjentoak itxuraz lasai.

— Itxaron, orduan.

Malasiako Tigreak ordea, Sandokanek, atera zuen gerritik kriss ezpata eta zintzurrean jarri zion punta.

— Hitz egin ezazu, bestela akabatuko zaitut.

- Ez, eta ez —erantzun zuen honek.
- Esan! —berriro Sandokanek ezpata estutzen zuelarik.
- Hitz egingo dut bada —esan zuen gatibuak.
- Nora zindoazen?
- Lord Guillon jaunaren etxera.
- Zertara?

Soldadua zalantzan jarri zen. Sandokan, ordea, berriro kriss delakoarekin inguratu zitzaion eta bestea larritu zen. Hala esan zuen:

- Baronet William Rosenthal delakoaren gutun eramatera.
- Eman iezadazu gutun hori!
- Nire kaskoan dago, txapa baten azpian.

Hartu zuen Yañezek kapelua eta txapa kendu zion. Han azaldu zen gutun hura.

- Ezer berririk ez —esan zuen irakurtzean.
- Zer idazten du baronet alu horrek? —galdetu zion Sandokanek.
- Lord jaunari zera esaten dio. Kruzeroren batek ikusi omen du gure itsasontziren bat. Agian berehala lurrartuko dugula eta erne ibiltzeko.
- Besterik ez?
- Aaa... bai. Ze tontoa naizen. Mila agur bidaltzen dizkio Marianari eta bere maitasun sugarraren zinik biziena.

- Bidean harrapatzen badut!
- Juioko —esan zuen portugaldarrak—. Bidal ezazu itsasontzira norbait. Eta ekar dezala azkar luma eta papera.
- Zer egitera zoaz? —galdetu zion Sandokanek harrituta.
- Nire asmoak aurrera eramateko behar dut.
- Esan, esan zer pentsatzen ari zaren.
- Bai, gizona, esango dizut. Lord James jaunaren kintara noala. Hori da dena.
- Zuuu?
- Bai, ni!!!! —erantzun zuen honek pausaki.
- Nola ordea?
- Honen jantziak jarrita. Nola bada? Ikusiko duzu ze polita jarriko naizen.
- Orain, orain hasten naiz ulertzen. Beraz, jutzen zara soldadu hau bezala, zipayo jantziekin eta Victoria aldetik zatozenaren itxura egiten duzu.
- Hori da Lord jaunari abiatzeko ordena ematen diot eta bidean segada batean erorarazten dugu.
- Ikaragarria zara Yañez —esan zuen Sandokanek besarkada bat ematen ziolarik.
- Ez hainbeste estutu gizona —Yañezek— hezurak hautsiko

dizkidazu eta.

- Hori lortzen badugu, zu izango zara nire gauza guztien jabe.
- Ikusiko duzu ze ederki aterako den.
- Ez al duzu arrisku gehiegirik ibiliko?
- Ba...! onik aterako naiz. Ez dut uste ezer gertatuko zaidanik.
- Baina, zertarako nahi dituzu papera eta arkatza?
- Lord jaunari gutun bat idazteko.
- Nik ez nuke horrelako jokatuko Yañez. Ze, gizon hori fidakaitza da. Letra desberdina dela nabaritzen badu, bertan zintzilikatuko zaitu.
- Arrazoa duzu, Sandokan. Hobe izango da mezua hitzez ematea. Ale, erantzi ezazue zipayo hori.

Bi piraten artean larrugorritan jarri zuten gatibua. Galdutzat jo zuen honek bere burua.

- Hil behar al nauzue? —galdetu zion Sandokani.
- Ez, hil ez —erantzun zion honek—. Zu hilda ez dugu ezer irabazten eta. Baina gu hemen gauden artean, gure gatibua izango zara.
- Eskerrik asko, jauna.

Eta jantzi zen Yañez zipayoaren jantziekin. Estu samar zeukan baina... tira. Ez hain gaizki ere.

- Ikusi, adiskide, ez duzula behin ere halako soldadu majo eta

presturik ikusi!

— Egia da —erantzun zion Sandokanek—. Ez nuen uste halako soldadu majo eta apaina egongo zinenik. Orain esan esaidazu zer egin behar dudan.

— Begira: egon zaitez hemen ezkutatua eta ez inora mugitu. Erasotuak izan zaretela esango diot. Basotan barna barreiatuak zaudetela eta erdi deseginak. Orain dela unerik onena Victoria aldera abiatzeko eta han babesteko.

— Oso ondo!

— Pasatzen garen bezain laster, zuek erasotu eskolta guztia. Erasogor. Nik eramango dut Mariana itsasontzira. Ados al zaudete?

— Oso ondo, nire lagun eta adiskide. Esan iezaiozu Marianari beti gogoan dudala. Gau eta egun.

— Agur lagun. Jainkoak, baldin bada behintzat, gorde gaitzala.

Aupatu zen zaldi gainean, hartu zituen eskutan zaldi uhalak, zulatu zituen ezproinak eta han abiatu zen pozik eta txistuka, paseatzera balihoa bezalaxe.

MOMPRACEM

Sandokanen uharteak Mompracem zuen izena. Leku beldurgarria, ze askok entzun hutsarekin dardarez jartzen baitziren.

Ingelesak Sandokan beste lekuetan zebilela jakin zutenean, eraso bizia jo zioten irla honi. Defendatzaile gutxi zeuden han. Hala ere bere kapitaina Giro-Batolek, hain ausarta izanik, zeharo menderatu zituen ingelesak. Nahiko lan eta kalte izanik, ordea.

Beraz, Sandokan haruntz iritsi zenean beso zabalik onartu zuten.

— Gora Malasiako Tigrea! —esaten zuten—. Goazen Labuan aldera ingelesek ekarri dizkiguten bala eta zoritxarrak itzultzera.

— Jauna —esan zion Giro-Batol kapitainak—. Abordaia egin nahi izan genien honuntza etorri ziren itsasontziei, baina ez genuen lortu. Goazen Labuan aldera. Eta sutu eta kiskaili ditzagun hango bazterrak, ez harri ez landare bizirik gabe utzi arte.

Sandokanek ez zion erantzun. Mariana hartu eta jendartera pasa zuen:

— Emakume honen aberria da —esan zien.

Jendeak harriduraz begiratu zion hain emakume ederrari.

— Labuan aldeko perla da hori! —zioten denek.

Sandokan eta Marianak eskilara batzuek igo zituzten. Gero zera esaten dio emazteari:

— Hau da zure etxea. Badakit ez dela oso polita. Baina segurua da. Etsaiak ez dira behin ere honantzaraino iritsi. Menderakaitza da. Seguru egongo zara hemen. Egunen batean Mompracemgo erregin

izan nahi bazenu, nik gaztelu bat egingo nizuke. Baina, alferrik da. Hemen dena hiltzen eta desegiten ari da.

Eta bere nahigabea disimulatu ezinik bi eskuak bularretan estutu zituen. Orduan Marianak:

— Asko sufritzen duzu, Sandokan. Ez didazu dena esaten!

— Ez, maitea, ez. Bihotz hunkituta nago, hori da dena. Ez al duzu ikusten nola dagoen gure irla hau, erdi puskatuta, lagun pila hilak, bazterrak deseginak.

— Sandokan, zuk lehengo zure indar galduari egiten diozu negar. Uharte hau galtzeko beldur zara. Nahi al duzu nik ere zuk bezala ezpata hartu eta borroka egitea?

— Zuk ezpata hartu? Ez ez, ez dut nahi zu horrelako emakumea izatea. Hemen ez dira kainoiak eta fusilak behin ere isiltzen. Ez nuke nahi zu hemen luzaroan bizitzerik.

— Beraz, zure handitasun, zure gizon eta indarrak baino gehiago maite al nauzu?

Bitartean piratak lanean ari ziren bazterrak konpontzen, defentsak ipintzen, zangak irekitzen, arrokak altxatzen eta abar.

Mariana utzi eta bere lagunengana joan zen Sandokan.

— Beharrezkoa dugu neurri bereziak hartzea. Gure irla desegiten badute ere ez ditzagula gure aberastasun handi horiek galdu.

— Ez ote gara bada gauza izango etsaiei kontra egiteko?— Nire dudak ditut, Yañez. Zerbaitek irla galdu behar dugula esaten dit.

— Ba... Zuk uztea erabaki duzunez gero, zer zaio gaur galdu ala

hemendik hilabete batera? Ba al dakite hori beste piratek?

- Ez, baina gaur bertan esango diet.
- Gogorra izango da denentzat, ikusiko duzu!
- Bai, badakit, baina berak nahi badute pirata gisa jarrai, segi dezatela, nik ez diet trabarik egingo.
- Baita zera ere, inork ez zaitu utziko, denek zurekin joan nahiko dute.
- Badakit, bai. Beno, Yañez, egin dezagun bada gure irla hau, konkista ezina ezin badugu, beldurgarri, zeharo beldurgarri.

Lanean ari ziren gizonengana inguratu ziren. Gogor ari ziren. Arrokkak jartzen, kainoiak, esku-kainoiak, barrikadak, zuhaitz enbor lodi, harkaitz puska haundi, burnizko babesak, denetik.

Gaua iritsi zenean hiru itsasontzi prestatu zituen itsasoratzeko. Haietako batean gorde zituen bere aberastasun guztiak. Mendebal aldera. Uharteak galtzen bazuten ere, ez zitezela haiek gal.

Gau erdia zen. Yañez, eta beste buruzagiak gordeleku nagusira, gotorleku nagusira igo ziren. Han zegoen Sandokan zain. Eder eta apain zegoen dena, berrehunen bat pertsona hartzeko moduan. Dena urre, ohial, tapiz eta argi eder.

Sandokanek ere jaijantzia ipini zuen, buru zinta berdea, gandorra perla ugariz hornitua. Gerritan zeramatzan bi kriss labanak, buruzagiaren ikur eta ondoan zimitarra beldurgarria, urrezko eskumuturrarekin.

--Lagunak, adiskideak --esan zien-. Gauza garrantzitsu batera deitu zaituztet. Mompracem gure irlaren etorkizunari buruz hitz egin nahi

dizuet. Urtetan ari naiz eta ari zarete gure etsaien kontra borrokan. Gure familia, gure senideak, gure herritarrak hil eta desegin zituzten arraza gaizto horren aurka. Gure lurrak mende hartu eta lapurtu dituzten horien kontra. Orain malasiarren odola galdu nahi dute, gainera. Nik, aski dut. Nahiko borroka egin dut. Atsedeen hartu nahi dut. Dena dela badakit, agian bihar hemen izango ditugula etsaiak gure irla hau desegin nahian. Orduan, dena dela berriro ere azkeneko aldiz borroka egingo dut. Gero uharte hau utzi nahi nuke. Emaztearekin bizitzera joan nahi nuke urrutira. Zuek nahi baduzue, jarraitu pirata lanean. Nire itasontzi eta kanoiak zuentzat. Nirekin etorri nahi baduzue, ontzat emango zaituztet aberri berrian.

Piratek ez zekiten zer esan. Harrituta bait zeuden. Batzuek negarrez, besteak burumakur.

— Negar egiten duzue? —esan zien Sandokanek—. Baina, nik ere barruan negar egiten dut. Nire indarra uztea, nire irla hau abandonatzea, nire itsasontzi, lagun, kanoi, dena uzteak halako min zirrara ematen baitit. Baina, alferrik da, aski egin dut. Orain nire emaztearena bakarrik izan nahi dut.

— Jauna, jauna —deihadar egin zion Giro- Batolek—. Ez zaitez joan. Gelditu hemen. Guk defendatuko dugu. Zure emaztearen aberria izango da. Gizon gehiago ekarriko ditugu, eta Labuan, Varuno, eta Sarawak, denak txikitu eta desegingo ditugu.

Marianari ere gauza bera esaten zioten besteek. Ez zutela utziko, berek defendatuko zutela, bere erregin izango zela...

Halako batean, hau jendartean aurreratu zen eta isiltzeko eskatu zuen:

— Sandokan —esan zuen ahots indartsuz—. Nik esango banizu, zure itsas lapurketak uzteko, zure mendekuak alderatzeko eta nik nire herritarrekin ditudan sokak hautsi eta hemen bizi nahi dudala, irla

honetan bizi nahi dudala esango banizu, onartuko al zenuke?

— Zu, Mariana, hemen gelditu?

— Zuk, esan: nahi al duzu?

— Bai, nola ez bada, eta geroztik ez nuke armarik hartuko, irla hau defendatzeko ez balitz.

— Hori horrela baldin bada —Marianak— izan dadila Mompracem nire aberria. Hemen geldituko naiz bizitzen.

Ehun beso pare altxa ziren gora bere arma eta guzti. Pozaren pozez. Neska berriz, Sandokanen besoetan. Denek batera zera zioten:

— Gora Mompracemgo Erregina. Gora Malasiako Tigrea.

GU DA ANKERRA

Hurrengo goizean gauzak zeharo aldatu zirela ematen zuen. Denek gizonak baino gehiago erraldoiak ziruditen. Lan gogorra egiten ari ziren. Ez baitzuten irla hura utziko. Beraz, ahal zen ondoena babestu eta hesitu behar zen.

Bakoitzak bere lana egiten zuen. Nondik hesiak jarriaz, harkaitzak ipiniaz, gordeleku indartsuak eginaz. Barkuetako artilleria ere han ipini zuten, minak ipini zituzten, zangak ireki. Azpian burdin pozoituak jarri eta ganean arantzazko zarbastak, polborinak ugaritu eta armak prestatu.

Bertako Erregina han zebilen denak animatzen. Denen buru Sandokan, non alde batean, non bestean ikusi baitzitekeen, animatuaz, lan eginaz, defentsak indartuaz, Yañez atzetik zuela.

Eguerdi aldean bezperan itsasoratu ziren hiru pirata itzuli ziren. Ez zegoen berri handirik. Kainonero bat, espainitarra itxuraz, ikusi omen zuten. Besterik ez. Beraz, lasai.

— Bada ni ez nago lasai —esaten zuen Sandokanek—. Eraso gogor bat espero dut. Oraingoan ez dira ingelesak bakarrik etorriko. Beste asko ere etorriko da.

— Espainiar eta holandarrekin elkartu ote dira bada?

— Bai, Yañez. Bihotzak hala egin dutela esaten dit.

— Bada ez gaituzte lotan harrapatuko. Gure irla hau zaila izango da

menderatzen.

— Bai, baina ez gaitzen fida. Eta netzutzen bagaituzte, ontziak prest daude ospa egiteko.

Gero zenbait pirata herri barrura joan zen bertako jendea borrokarako kontratatzeko.

Gauerako bazter hura zeharo indar armatua zegoen. Bazirudien menderakaitza zela.

Hiru ilada defentsa jarrita zeuden erdi borobilean.

Hesiak eta zangak tartean inork sartzea saiatzen bazen ere.

Alde guztietan kanoiak, eskukanoiak, morteroak eta zer dakit nik...

Gauetz Sandokanek ontziak masta gabe eta ezer gabe uzteko agindua eman zuen, etsaiak erabili ez zitzaizkien. Gero kostak zaintzera txalupa batzuk bidali zituen.

Goizaldera ordea, Sandokan, Yañez eta Mariana, asalatuak esnatu ziren. Zera entzun baitzuten:

--Etsaia, etsaia!

Jaiki ziren biziki eta arroka ingurura atera.

Egia zen. Sei zazpi kilometrora, ontzi andana handi bat begiztatu zuten. Gudurako prest eta iladan jarriak zetozen. Sandokan eta Yañez kopetilun jarri ziren:

— Hori da barku pila hori —esan zuen Sandokanek—. Non bildu ote dituzte ingeles horiek hainbeste barku?

— Gure kontra etortzeko elkartu dira. Begira: ingeles barkuak daude, holandarrak eta halako pirata alu... Varauni deritzaiona ere hor dator.

Begira gero zer nolako ontzi pila zetorren: tona handiko hiru kruzero ingelesen ikurrinarekin, bi korbet ontzi leporaino armatuak, lau kainoilari eta Varauni Sultanaren zortzi itsasontzi. Denetara, 150-160 kainoi eta mila eta bostehunen bat gizon.

— Gehiegi da hori —oihukatu zuen Yañezek.

— Bai, baina gu ausartak gara eta gure morala handia.

— Irabaziko al dugu, Sandokan? —murmur egin zuen Marianak.

— Ez dezagun itxaropenik gal. Nire gizonak ausartak dira.

— Sandokan, beldur naiz.

— Zeren beldur?

— Hilko ote zaituzten beldur!

— Gaur arte nire izan dudan izarrak ez nau orain zure alde ari naizenean utziko.

Eskailera jaitsi eta bakoitza bere postura joan zen. Han ziren bertako

berrehun seme ere. Hauek ez zekiten gudu egiten, bai ordea kanoiak disparatzen. Zerbait bazen.

— Ba... Hirurehun eta berrogeita hamarren bat gara. Zerbait egin dezakegu.

Sandokanek ausartenen arteko bizpahiru hartu eta basora bidali zituen Mariana zaintzeko.

— Laster itzuliko naiz zuregana—esan zion—. Ez naute zaurituko, zaude lasai.

Irribar egin eta bere gudu mutilengana joan zen oihuka:

— Ala tigretxoak, ala basakatuak, ala basurdeak. Irabaziko dugu!

Eta denak:

— Gora Sandokan. Gora Erregina.

Etsaiak sei bat kilometrotata heldu ziren. Bazirudien ontzi nagusian bilera bat egitera zihoazela.

Hamarrak aldera ostera, badiarantz abiatu ziren.

— Aurrera Tigreak —oihu egin zuen Sandokanek—. Gogora ezazue Erreginaren alde ari zaretela eta zuen etxetar eta herritarrak hil dituztenen aurka.

Kanoikada batek kolpean piraten banderaren masta txikitu zuen. Eta Sandokanek berekiko:

— Ai, etsai zitalak, barruak irabaziko duzuela agintzen dit.

Ontzidi guztia aurrera zetorren, lerro bat eginaz. Erdian kruzeroak eta saietsetan Varaunirenak.

— Eman su —esan zien Sandokanek—. Garbitu ezazue itsaso hori.

Bakoitzak bere armak disparatu zituen. Bazirudien lurrikara bizia sortu zela. Danbateko bikainak hartu zituzten itsasokoek.

Baina ostera berehala erantzun zuten.

Itsasontzi guztiak batera su jo zuten. Une berean disparatzaileak jo eta sutzen zituzten armak.

Ikusgarria baitzen hura. Gizon taldetxo bat era hartan hainbeste eta hainbesteren aurka. Han ziren sua eta garrak, han ziren kanoikadak. Itsasontzien saiheitsak gero eta deseginagoak geratzen ari ziren. Baten batek lehorreratu nahi bazuen, hara zuzentzen ziren zehatz erantzun sutsuenak eta gogorrenak. Atzera jo behar zuten ostera.

Eta haien artean, edozein baino ausartago, balentriago, Sandokan bera, su eta gar, kanoi bati jo eta ke. Denak animatuz:

— Eman sutagarrari! Garbitu itsasoa! Urazpiratu barkutzar horiek!

Gogor ari ziren bai piratak sutzar haren tartean. Hainbeste kanoikada eta abar ingurura erori arren eta bere bastioi handi haiek erdi desegin arren, odol otzenarekin apuntatu eta etsaia triskatzen zuten alde guztietatik.

— Zatozte, zatozte lur hartzera —esaten zien Sandokanek—. Ume petralak. Zer egin dezakezue zuek gure aurka?

Bastioi haiek trinko mantentzen ziren bitartean eta polbora bukatzen ez bazen behintzat, han ez zegoen zereginik.

Erasotzaileak larri ziren. Bere ontziak erdiak galduak, beste erdiak desarbolatuak eta zulatuak. Atzera itzultzera zihoazen. Seiak ziren, gutxi gorabehera. Batbatean urruti zetorkien laguntza begiztatu zuten.

Beste bi kruzero ingeles ziren zetozenak, korbet holandar bat eta oihalezko bergantin bat, denak hortzetaraino armatuak.

Hura ikusi zutenean, dena galdutzat jo zuten Sandokan eta Yañezek. Ordu laburretan galduko zuten irla. Baina ez ziren desanimatu.

Handik zetozen granada, bonbazo eta abar ikaragarriak ziren. Bastioi gogorrenak ere kolokan jarri ziren. Hesiak hautsi zituzten. Ordu bete baten buruan lehenengo bastioi ilada zeharo hauts bihurtuta zegoen.

Sandokanek barku etsai nagusia bereziki erasotzea erabaki zuen. Hara bidali zituen bere tiro nagusiak. Hogei minutu eutsi zion. Azkenean ordea, Girol-Batolek bota zion granada astun batek izugarritzko urradura ireki eta ur azpira joan zen. Une larriak izan ziren barrukoentzat. Ontzitxo eta abar saiatu ziren uretaratuak jasotzen. Baina gutxi libratu ziren piraten metrailetatik.

Ontzi taldea une batetan geldirik egon zen. Gero berriro hasi ziren.

Irlako bateriak denak deseginak zeuden. Piratak bigarren bastioi

iladara pasa beharra izan zuten.

Oraindik trinko mantentzen zen erdi erdiko bastioia, bera baitzen indartsuena eta armatuena.

Eta Sandokan beti animatzen. Baina bazekien dena galdua zegoela. Ordu erdi bat geroago polborin bat lehertu zen. Eta bere azpian hamabi pirata eta hogeitaz bertako hil ziren.

Beste ahalegin bat egin nahi izan zuten. Kruzero handiena eraso behar zen. Baina bazterretako kanoiak lehertuak zeuden.

Hogeiren bat minutu pasa zirenerako erdiko bastioia ere zeharo txikitu, lurrera etorri eta berarekin pirata sail bat hil zen.

— Sandokan —esan zion Yañezek—. Esaiezu lagunei atzera jotzeko. Gero berandu izan daiteke eta. Galdu dugu hau.

— Egia da —erantzun zion honek.

Hondamendi handia zegoen inguruan. Hamazazpi kanoi eta hogeitaz esku kanoi besterik ez ziren gelditzen. Ontzi batekoak lehorreratzera zihoazen.

Beraz presaka jokatu beharra zegoen.

Erretiradan zeuden bitartean negar egiten zuten itsaslapurrek. Basoan barna galdu ziren etsaiak lehorreratzeko ziren une berean.

Mompracem galdua zegoen.

DENOK ITSASORA!

Pirata gutxi geratzen ziren bizirik. Hirurogei edo... Eta gehienak zaurituak. Berrero borrokarako prest egon arren, hura momentu txarra zela ulertzen zuten.

Sandokan eta Yañez buru zituzten. Hauek Zauritu gabe zeuden zorionez. Lasai zeudela zirudien. Sandokanek bazekien bere pirata lanak bukatu zirela, irla galdu zuela. Zoritxar haren tartean berarekin zeukan behintzat Labuaneko Perla, Mariana alegia.

Baina kezka barrundik baitzihoan. Pauso bizian erreka lehor batetara ailegatu ziren. Han zeuden mutilak eta Mariana.

— Goazen Mariana. Etsaia hurbilean dugu. Aurrera tigreak, abia gaitezen. Agian oraindik borrokaren bat egin beharrean aurkituko gara.

Urrutian sugarrak ikusten ziren, herria sutan jarri zuten erasotzaileek.

Sandokan eta Mariana zaldi gainera igo ziren. Besterik gabe, mendebaldera jo zuten denek.

Hamaiketarako kostako herrixka batetara iritsi ziren. Han zeuden hiru itsasontziak zain.

— Azkar, igo gaitezen —zian Sandokanek—. Ez dezagun denborarik gal.

— Atzetik erasoko gaituzte —Marianak.

— Agian. Baina nire zimitarrak defendatuko zaitu. Lasai.

Hondarretara zuzendu ziren.

— Ez dut argi bat bera ere ikusten —esan zion Marianak—Agian honela errazago ihes egingo dugu.

— Ontziratu gaitezen.

Eta besterik gabe sartu ziren hiru ontzietan pirata guztiak.

Sandokanek ezin zuen minari eutsi.

— Nire lagun maite hori! —esan zion Marianak berari.

— Ai —erantzun zion honek—. Badirudi bularra pusketan hautsi zaidala.

— Zure indarra eta zure irla galduaren pena duzu, ezta?

— Bai, halaxe da, bai.

— Egunen batean, agian, berreskuatuko duzu eta ostera itzuliko gara.

— Ez, ez, Malasiako Tigrearenak egin du.

Burua makurtu eta aieneka latz bat egin zuen. Gero, ordea, berriro burua altxa eta:

— Itsasora, itsasora! —oihu egin zien denei.

Laino ilun haien tartean, ordea, bi argi unetxo azaldu ziren. Haiengana zetozen dudarik gabe.

— Kuzeroak, kuzeroak —deihadar egin zuen ahots batek—. Erne lagunok.

Sandokan ere altxa eta hara begira jarri zen:

— Oraindik ere etsaiak —zioen haserre bizian—. Itsasoan ere desegin nahi gaituzte. Erne tigreak, lehoiak gure kontra datoz eta. Eskuetan armak hartu.

Besterik gabe, denak armak eskuetan, borrokarako prestatu ziren. Agian, oraindik ere irla galdua berkonkistatu zezaketen.

— Mariana! —esan zion Sandokanek—, sar zaitez ganbarara.

— Galdu gara —erantzun zuen honek.

— Oraindik ez.Guk badakigu mendekua hartzen.

— Agian bi kruzero indartsu horiek dira.

— Berdin da. Baita mila lagun badituzte ere, abordaiatuko ditugu.

— Ez ezazu borrokarako agindurik eman Sandokan. Agian oraindik ez gaituzte ikusi eta.

— Egia da hori, Mariana! —esan zuen buruzagi batek— Gure bila dabilzala seguru da, baina ez dut uste oraindik ikusi gaituztenik. Gaua iluna da. Ez dugu farolik piztu eta horrela ezin gaitzake ikusi. Zuhur jokatu Sandokan. Beste borroka hau egin gabe pasatzen bagara, hobe.

— Bai, bai! —erantzun zuen honek.

— Gorde ditzagun ahal bezain ongi gure indarrak.

Sandokanek emandako agindu batera, ontziak hegoaldera jo zuen. Bai baitzegoen han badia bat aski apaina, hiru ontzi babesteko. Beste biak hari jarraitu zioten.

Haizea aldekoa zutenez gero, eguzkia ateratzerako iritsiko ziren. Hala

uste zuten behintzat.

— Aldatu al dute bidez beste horiek? —galdetu zuen Marianak urrutira begira.

— Oraindik ezin dugu jakin.

— Itsaso zabalean daudela uste dut, ezta Sandokan? —Marianak.

— Ez Mariana, ez. Bi ontzi horiek ere bidez aldatu dute.

— Guregana al datoz?

— Hala uste dut.

— Ezin ote dugu ihes egin? —neskak erdi negarrez.

— Zer egin dezakegu guk makina horien kontra? Haizea arina da oraindik. Ezin dugu abiadura handirik hartu. Dena dela, egusentira haizea handitzen da eta orduan, bai, noski.

— Sandokan!

— Mariana!

— Pentsamendu ilun eta tristeak dauzkat buruan.

— Lasai, neska. Zure alde isuriko dugu gure odola.

— Bai, hori badakit. Baina ni zure beldur naiz, ez nire beldur.

— Nire beldur? Ni ez naiz inoren beldur. Tigrea garaitua dago ,baino ez dago otzandua.

— Eta bala batek zaurituko bazintu. Jainko maitea, ze pentsamendu

okerrak!

— Gaua iluna da, guk ez dugu argirik piztu eta ez dut uste...

Une berean Yañezen ahotsa entzun zen:

— E, Sandokan!

— Zer nahi duzu Yañez —Sandokanek.

— Bi barku horiek gure bidea moztu nahiean ote dabiltzan susmoa dut. Ze lehen gorri zen argia orain berde bihurtu baita. Horrek norabidea aldatu dutela esan nahi du.

— Beraz, ingelesek hemen gaudela nabaritu dute.

— Hala uste dut.

— Zer egin dezakegu?

— Sar gaitezen itsas barnera etsaien tartetik. Ikusi, ikusi. Bata bestetik urrutiratzen ari dira. Erdian harrapatu nahi gaituzte.

Portugaldarra ez zen nahastu.

Bi barkuek misteriozko bidealdatze bat egin zuten elkarrengandik urrutiratuaz. Batak iparrera jo zuen eta besteak hegoaldera. Ez zegoen dudarik. Itsasontzi eta kosta tartean jarri nahi zuten, badiaren batean babestu ez zitezen eta itsaso nagusian borroka zitezen.

Sandokanek aserre oihu bat bota zuen:

— Berriro gudua nahi al duzue? Hala nahi baduzue, hala izango duzue.

— Oraindik ez —erantzun zion Yañezek—. Pasa gaitezen bien artetik itsaso nagusira.

— Harrapatzen gaituztela, Yañez! Oraindik haizea arina baita.

— Saia gaitezen. Zuek... itzuli oihalak lokarrietara eta jiratu mendebaldera. Artilariak bere postuetara!

Une bat geroago hiru ontziak mendebalderuntz jiratu zuten. Bi kuzeroak konturatu ziren eta beraiek ere bidez aldatu zuten. Bien artean harrapatu nahi zituzten.

Hala ere ez zuten maniobra hura zeharo ulertu. Sandokanek oihalak zabaltzeko agindua eman zuen abiadura handitzeko.

Hogei minututan ihesari eman zioten. Bien bitartean, bi kuzeroak bere asmoak bete ezinik elkarrengana hurbildu ziren.

Piraten begiak trinko zeuden haiengan. Zer egin nahi zuten asmatu ezinik. Fusilak eta armak prest zituzten. Une berean, berriro ere farolen kolorea aldatu zen. Seinalea berriro jiratu zutela.

Geroxeago zera oihukatzen du Yañezek:

— Aizue...! Harrapatuko gaituztela!

— Alu zitalak! —Sandokanek—. Itsasoan ere eraso nahi gaituzue! Denontzat aina metraila eta bala badugu. Ingura zaitetze. Ingura zaitetze.

— Galdu gara— Marianak.

— Oraindik ez, maitea. Azkar. Itzul zaitetz barrura. Laster izango dugu hemen kazkabarra eta.

Berehala etorri zen granada eta bala kazkabarraldia.

Marianak Sandokani heldu zion:

— Ez nazazu utz—esan zion—. Ez zaitez nigandik urrutiratu. Beldur naiz.

Baina Sandokanek bultzadatxo baten bitartez baztertu zuen:

— Niregatik lasai! Utz iezadazu azken borroka egiten. Utz iezadazu azkeneko aldiz irabazten.

— Sandokan! Susmo txarrak dauzkat barruan. Utz iezadazu zure ondoan egoten. Nire herritarren aurka defendatuko zaitut.

— Nahiko naiz ni horiek guztiak itsasora botatzeko. Kanoiak isildu gabeari ziren. Gudariak oihuka eta zaurituak aieneka.

— Aurrera mutilak, aurrera tigre ausartak!

Bi aldetatik borroka bizia ari zen. Kanonero batek, portugaldarraren ontzia, altxorra zeramana, abordaiatu nahi zuen. Baina, alferrik. Honek eman zion kanoikada batek, masta nagusia pikutara bota baitzuen.

Garaipena segurua zen alderdi horretatik. Ondoan zegoen, ordea, korbeta ikaragarria. Lepo hezurretaraino armatua. Gizon asko zihoazen barruan.

Sandokanen beste bi ontziak eraso zituen. Eta hauek erdi puskatutak zeuden dagoeneko.

Sandokanek animatu zituen ordea, bere mutilak eta kanoi baten atzean jarri zen esanaz:

— Aurrera mutilak, aurrera basurdeak, eta tigreak. Garbi dezagun itsasoa.

Alferrik ordea. Borroka galtzen ari baitziren.

Bestea askoz handiagoa izanik, armak hobeak, jende gehiago, alferrik ziren esandako guztiak.

Ezin zuten hainbesteko amorrazio hari eutsi. Laster bi ontziak zakutzar bihurtu ziren.

Portugaldarra, ordea, irabazten ari zen.

Ikusi zuen Sandokanek ez zegoela zer eginik. Ondoko ontzia urpera zihoala ikusiaz, inguratu eta bertako piratak berera pasarazi zituen. Gero esan zuen:

— Aurrera mutilak, aborda dezagun beste hori!

Etsipena hark indarberritzen zituen. Jarri zituzten kanoi guztiak eta esku kanoiak amulara begira. Eta kolpean bazter hura garbi utzi zuten. Gero bota zituzten abordaiarako garrangak. Yañezek bere aldetik pikutara bota zuen bestea polborategitik zulatuaz.

— Ez beldurtu Mariana! —esaten zuen Sandokanek.

Berehala etsaiaren barkura pasa zen, atzetik mutil guztiak zituela.

— Kendu aurretik —oihukatu zuen bere zimitarra eskuetan zuela—. Tigrea naiz.

Marinelen aurka jo zuten kolpea. Hauek denak popa aldera atzeratu ziren. Baina branka aldetik beste gudari pila bat atera zen, buruzagi bat aurrean zutela. Buruzagi hura ezaguna zen Sandokanentzat.

- A! Zu al zara baronet? —galdegin zion maltzurki.
- Non dago Mariana —galdegin zion honek.
- Non dagoen? Hire ipurtzuloan!

Eta sekulako zimitarrakada eman zion. Lurrean zegoela kriss bat gurutzatu zion eztaarritik barna. Une hartan ordea, bera ere lurrera erori zen buruan zaurituta.

GATIBU

Buruko kolpe latz haren zorabioak aldegin zionean, bere onera itzuli zen Sandokan. Gatibu zegoen. Begira gero gatibu Malasiako Tigrea.

— Ni gatibu —esan zuen berekiko amorrazioz beteta—. Zer gertatu zait ordea? Ingelesak menderatu gaituzte? Eta non ote dago Mariana? Bizi ote da?

Bihotzak korapilo egin zion saihets hezur tartean.

— Mariana -oihu egin zuen egonezinik—. Nire maite hori, non zaude? Yañez? Juioko? Tigre guztiak? Non zaudete? Inork ez du erantzuten. Denak hil ote dira? Ezin daiteke. Edo ni ametsetan nago?

Eta barrua beldur batean jarri zitzaion. Beldur eta izuz betea.

— Hilak! Denak hilak! Ni bakarrik gelditu naiz bizirik! Mariana! Yañez, nire lagun maite maitea! Juioko! Zu ere hil zara, zu ere bai! Berehala ordea, oihu batzuek entzun zituen.

— Bizi al da oraindik Malasiako Tigrea?

Sandokanek ingurura begiratu zuen. Zintzilik zegoen esku-argi baten argia besterik ez zen ikusten. Baina asko zen hura han bazterrean beste pertsona baten itzala nabaritzeko.

Aurren aurrena ez zuen kupela eta barrika besterik ikusi. Gero, bai, ikusi ahal izan zuen erdi etzanda zegoen norbait.

— Nor ari da Malasiako Tigreaz hizketan?

Sandokanek ezagutu zuen ahots hura. Eta begi biak pozik piztu zitzaizkion.

— Nire taldeko norbait ote dago, bada, hemen? —esan zuen—. Agian Juioko? Juioko...! —oihu bizi egin zuen.

— Kapitain jauna —erantzun zuen beste muturretik.

Gero, Sandokanen oinetara erori eta esan zion:

— Hil zinela uste nuen eta...

Hirugarren itsasontziaren kapitaina zen hura. Ospe handiko marinela trebea.

Gizon altu eta ondo egina, begi handi-handi eta argiak. Borneotarra. Bere zenbait herritarren gisa, beso biak besokoz inguratuak zeuzkan.

Ausarta izan arren, ezin izan zuen Sandokan ikustean negarra disimulatu.

— Bizirik! Oraindik bizirik! Zer zoriona! Gutxienez txarrena ez zaizu gertatu. Hainbeste okerren tartean ez da zorte txarra.

— Zer gertatu zaigu? Zer? —galdetu zion Sandokanek—. Denak hil al dira bada?

— Denak, bai, denak —erantzun zuen honek zotinka.

— Eta Mariana? Ontziarekin batera urazpira joan ote bada? Esan iezadazu Juioko!

— Bizi da, bai. Bizi da.

— Bai ote? —Sandokanek—. Ez da posible. Ziur al zaude hori egia dela?

— Bai, nire kapitaina, bai. Zu gatibu zeunden. Baina ni eta beste lau

borrokan ari ginen oraindik ontzi gainean. Mariana, neska ilegorria ekarri zutenean.

— Nork zekarren?

— Ingelesek zekarten gizona. Zirudienez, behe ganbara urez bete zen. Bera orduan barku gainera igo zen eta han harrapatu zuten. Hala jokatu ez bazuen, barku eta guzti urpean galduko zen. Bizi da orduan?

— Bai, bizi da. Eta zure galdera egiten zuen . Oihu biziz.

Eta nik ezin lagundu.

— Guk lagundu bai izan genion. Baina lau besterik ez baikin. Berrogeita hamar gizonak inguratu gintuzten. Gu bera libratzera zuzendu ginen. Ni ordea, hankapean zapaldu eta gatibu hartu ninduten.

Eta Mariana, barku honetan al dago?

— Bai, Malasiako Tigrea, hemen dago.

— Ez ote dute beste barkuren batera pasa? Kanoinerora edo—. Kanoineroa? Zera... Dagoeneko urazpian dabil igeri —esan zion Juiokok.

— Zer esan nahi duzu?

— Pikutara bota zuela.

— Nork, Yañezek?

— Bai, kapitain jauna.

— Orduan, Yañez ere bizi da?

— Hala uste dut. Honantza nidekartela ikusi nuen oihalak zabalik ihes bizian urrutiratzen. Borrokan ari zela kanoinero hori kurpilak hautsita utzi zuen. Gero su eman zion. Polboralekua lehertu ziola uste dut.— Eta gureak? Ez al du inork ihesirik egin?

— Inork ez —erantzun zuen Juiokok hasperena eginez.

— Denak hilak —esan zuen honek minari eutsi ezinik—. Ikusi al zenuen nire soldadu onena zen Singal hiltzen?

— Bai, nire ondoan erori zen bularra odolez beteta.

Ausarta izan arren, Sandokanek ezin zuen eraman hainbesteko mina. Burua makurtuta bere zoritxarretan murgildu zen. Lagunak hilak, irla galdua, emaztea berdin.

Baina hain ausarta zen gizon bat, ezin zitekeen luzaroan horrela egon. Altxa zen bat-batean eta Juiokori begira jarri zen. Zera galdetu zion:

— Gure atzetik ote dabil Yañez? Zer iruditzen zaizu?

— Nik hala uste dut. Hark ez gaitu gu zoritxar honetan bakarrik utziko.

— Hala espero dut nik ere —erantzun zion Sandokanek—. Beste edozeinek ihes egingo zuen daramatzan altxor ikaragarriekin. Baina berak ez, ez da gauza hori egiteko. Gehiegi maite nau.

— Eta zer esan nahi duzu horrekin?

— Ihes egin behar dugula, hori esan nahi dut! Lagunak harrituta begiratzen zion. Erotu ote zen edo bere buruari galdezka.

— Alde egin? Nola ordea? Ez dugu armarik ere. Horretaz gainera,

katepean gaudelarik, nola?

— Badut era bitxi bat gu uretara botatzeko! — Ez zaitut ulertzen!
Nola botako gaituzte uretara?

— Norbait hiltzen denean, zer egiten da berarekin?

— Ohe batean lotu, kanoi beruna erantsi eta uretara bota.

— Bada, gurekin ere gauza berbera egingo dute —esan zuen Sandokanek. — Zer nahi duzu? Gure buruaz beste egin dezagun?

— Bai, suizidatu, baina gero ostera bizitzera itzultzeko baldintzarekin.

— Bai gauza bitxia zuk diozuna! Egin al daiteke hori?

— Ez al duzu aski nik esatea?

— Bai, hala da, aski dut zuk esatea, sinistu beharrean aurkitzen naiz.

— Yañez lagunarengan geldituko da orduan etorkizuna.

— Dagoeneko urruti egongo da bera.

— Baina itsasontzi honen atzetik dabilela ziur dakit. Goizago edo beranduago jasoko gaitu.

— Eta gero?

— Gero Mompracem edo Labuan aldera itzuliko gara Mariana askatzera.

— Amets egiten ari zara!

— Nik amets? Txantxetan ari naizela uste al duzu? Ez baitugu gerrian

kriss kamuts bat ere.

— Ez dugu ez kriss ez ezeren beharrik izango.

— Gainera katepean gaude eta.

— Katepean —oihu egin zuen Malasiako Tigreak—. Preso baten burdinak espartzua bezala puska ditzaket. Nahi dudanean! Ikusi!

Bihurtu zituen kateak eta izugarrizko tiraldi bat emanaz, kateak txikitu eta urrutira bota zituen.

— Aske dago Tigrea! —oihukatu zuen.

Une berean sabaizulokoatea ireki zen eta eskailera soinua entzun zen.

— Hor daude zerriok! —oihukatu zuen daiakoak.

— Denak popatik hartzera bidaliko ditut —esan zuen erdi isilik Sandokanek.

Hartu zuen lurrean zegoen manibela hautsi bat eta prestatu zuen berak zekien bezalako danbateko latz eta hilkor bat emateko. Baina bere lagunak, daiakoak gerarazi zuen eta esan:

— Kapitain jauna, zer nahi duzu, hil ala zer? Ez al duzu pentsatzen hor ontzi gainean beste berrehun gizon armatu daudela?

— Bai, bai, erotzen hasi naiz ni —erantzun zion honek—. Ezin dut etsi eta hori da guztia. Tigrea garaitua dago.

Hiru gizon inguratu zitzaizkien. Batak korbetaren tenientea zirudien eta beste biek marinel soilak.

Buruzagiaren esate batetara, baionetak armatu eta fusilak bi piraten

aurka apuntatu zituzten.

Tigrearen aurpegian ez zen izurik azaldu. Irribarre maltzurra baizik.

— Beldur al zara, teniente jauna? —galdegin zion Sandokanek—. Edota zure arma dotoreak azaltzera etorri zara guregana? Jakin behar zenuke ez naizela fusil horien eta inoren beldur.

— Badakit bai, Malasiako Tigreak ez dela inoren beldur. Badaezpada ere egin dut.

— Ez armatua egonik ere?

— Baina ikusten dudanez ez zaude katepetua.

— Ez zaizkit asko gustatzen kate horiek, hori da dena.

— Indar bikaina duzu, arraioa.— Utz ditzagun zorakeriak. Ea, zertara etorri zaren.

— Sendatu beharrik bazenu ere bidali naute.

— Ez nago zauritua —erantzun zion Sandokanek.

— Baina borrakada gogor bat hartu baituzu buru hezurrean.

— Ez hainbestekoa. Txapelak defendatu ninduen.

— Hau gizona! —erantzun zuen tenienteak harrিতuta.

— Bukatu al duzu?

— Oraindik ez, Malasiako Tigrea.

— Ikus dezagun, zer gehiago nahi duzu?

- Andereño batek bidali nau.
 - Marianak?
 - Bai , andereño Guillon deritzaion Mariana.
 - Bizi al da oraindik? —galdegin zion Sandokanek urduri, bere gorputz guztia odol bizitan jartzen zen bitartean.
 - Bai, bizi da eta ondo dago. Neuk salbatu nuen zure ontzia urpera zihoan une berean.
 - Arren eskatzen dizut, teniente jauna. Hitz egin iezadazu berataz.
 - Jakin behar zenuke dama hori galdutzat jo dezakezula. Nondik norainoko itxaropena eduki dezakezu orain?
 - Hala da bai —erantzun zuen Sandokanek intzirika—. Hiltzera kondenatuta nagoen bat besterik ez naiz.
- Tenienteak, ordea, ez zion erantzun. Ondo asko zekien kondenaren berri.
- Esan iezadazu egia osoa —otoi egin zion Sandokanek—. Egia al da hiltzera kondenatuta nagoela?
 - Ez zaude nahastuta, Sandokan: urkatu egingo zaituzte. Nahiago nuke nire mutilekin batera hil banintzen.
 - Fusilatuta?
 - Bai.
 - Bada nik —erantzun zion tenienteak—. Zure bizia salbatzeko

botoa eman nuen. Ez da gaur egun zu bezalako gizon ausarta eta treberik ikusten. Gure gudarostean aginte nagusi bat emango nizuke gainera.

— Eskerrik asko, zure asmoak oso onak dira. Baina ez naute hiltzetik salbatuko.

— Hala da bai. Nire herritarrak ikaragarria zarela esaten dute. Baina ez daude lasai zu bizirik zauden bitartean.

Une batean isiltasun ikaragarri bat egin zen inguruan. Gero Sandokanek zera galdetu zion:

— Nire buruaz beste egin nahiko banu, auka jarriko al zinateke?

— Ez —erantzun zion tenienteak—. Zu bezalako gizon bati ezin diot honelako mesede bat ukatu.

— Orduan kontsidera ezazu hil naizela.

— Nola ordea, nik ezin dizut horretarako biderik eman.

— Ez dut zure laguntzaren beharrik. Neuk badut zerekin hil.

— Pozoiren bat ala?

— Pozoia bai! Fulminantea! Baina beste mundura joan aurretik mesede bat eskatu nahi nizuke.

— Hiltzera doan bati, ezin zaio inongo mesederik ukatu.

— Pozik ikusiko nuke azkeneko aldiz Mariana.

Teniente jauna mutu geratu zen.

— Arren eskatzen dizut! —Sandokanek.

— Biak banatuta edukitzeko agindu zorrotza daukat. Gainera, hobe da zuen biontzat halako une larri batean ez elkar ikustea. Sufrimendu berria besterik ez litzateke izango.

— Ez nuen uste hain gogorra zinenik. Nik marinela ausarta eta gizatasunez betea zinela uste nuen.

Teniente jauna zalantzan geratu zen.

— Zin egiten dut. Agindu horiek hartu nituen. Sinistu izezazu.

— Barkatu, barkatu —esan zion Sandokanek...

Eta tenienteak:

— Zarena zarela ere, nik ez dizut zuri inongo gorrotorik. Hori egia dela baieztatzeko, aginduak agindu, ekarriko dut, bada, hona zure Mariana hori. Okerrago izango da zuentzat baina...

— Ez diot hiltzera noanik esango.

— Zer esan behar diozu orduan?

— Zenbait bazterretan altxor tesoroak gordeta dauzkat. Zenbait lekuetan barreiatuak. Haien berri eman nahi diot berak jaso ditzan.

— Beretzat?

— Bai, berak egin dezala nahi duena. Noiz ikusiko dut, teniente jauna?

— Gaua iritsi baino lehen.

- Mila esker, jauna.
- Baina zin egizu, ez diozula suizidatu behar duzunik esango.
- Zin egiten dut. Nire hitza emana dago. Gogorra da halere, zoriontsu sentitzen nintzen une berean hil beharra. Hobe izango nuen barku eta guzti pikutara joan banintz. Nire maitearen besotan jaitsiko nintzen urpera, behintzat.
- Eta nora zindoazen zu gure barkuak asaldatu zintuztenean? Urrutira. Ez dakit nora. Agian Indiara. Berdin da, orain ez du erremediorik.
- Agur, Malasiako Tigrea —esan zuen tenienteak.
- Zure agindua bete zain egongo naiz.
- Ordu batzuen buruan hemen izango da Mariana.

Tenienteak bi soldaduak deitu zituen, zeintzuk askatu baitzuten Juioko bere katetatik eta ostera ontzi gainera igo ziren. Sandokan begira zeukan, besoak gurutzatu eta halako irribarre ulertezin batekin.

- Berri onak ekarri al dizkizu? —galdegin zion Juiokok.
- Gaur gauean libre izango gara! —erantzun zion Sandokanek.
- Eta ihesa posible ez balitz?
- Orduan, ontzi honen saihetsak ireki eta denak urpean itoko gara.

UTZI PAKEAN

Tenienteak aldegin eta Sandokan eskailean eseri zen, burua eskuarten zuelarik. Haren barruko mina. Negarrez baleki, hamaika egingo zukeen! Juioko ondoan zegoen, zer esan ez zekiela. Ordu laurden bat edo hogeita bat minutu igaro zireneko goiko eskotila ireki zen ostera. Kanpoko argi izpia sartzen hasi zen.

Altxa zen Sandokan eta begiratu zuen. Goitik behera neskotila bat zetorren mantso-mantso. Zurbil, malkotan eta triste. Teniente jaunak laguntzen zion, zeinak eskua pistolaren gatiluan baitzeraman. Sandokanek Marianari eskua estutu zion maitekiro.

— Maite, maite, maitea! —esanaz izkina ertz batera eraman zuen. Azkenean ikusten zaitut. Zu zara nirea!

— Sandokan! Sandokan! —xuxurlatu zuen honek— Ez nuen uste ostera ikusiko zintudanik.

— Gora, Mariana, animo! Ez negarrik egin. Ez nazazu goibeldu.

— Bihotza urratuta daukat. Ez dut zu hiltzerik, ez dut nahi zu uzterik. Nik guztien kontra eta guztien gainetik defendatu zaitut. Nik askatuko zaitut. Nire izatea nahi dut.

— Zurea, zurea! —erantzun zion Sandokanek intzirika—. Zure izan, noiz ordea?

— Zergatik esaten duzu: noiz ordea?

- Ez al dakizu Labuan aldera naramatela hiltzera, urkatzera?
- Nik salbatuko zaitut.
- Egin dezakegu hori bai, nire esana betetzen baduzu!
- Zer? Asmo eta proiektu batzuk al dituzu ala? —galdegin zion honek pozturik.
- Bai, proiektu batzuk ditut. Jainkoak lagun, onik aterako gara.

Tenienteari begiratu zion badaezpada ere. Eta ahal zuen urrutiena eramane zuten Mariana

— Ihes egitera noa! Entzun duzun bezala, egitera! Baina, oraingoz ezin zaitezke zu nirekin etorri.

— Zergatik ez Sandokan? Ez ote naiz gauza zu zoazen lekuetara ni ere joateko?

— Ezinezkoa da, Mariana, ezinezkoa. Nire diru eta ondasun guztiak emango nituzke. Baina ezin da. A... hori bai! Ihes egiten lagundu behar didazu. Eta nire hitza duzu: ez zarela herritarren artean luzaroan egongo. Besterik ez bada ere, munduko gudari mutil talderik bikainena eta indartsuena organizatuko dut zu libratzeko.

Marianak esku tartean ezkutatu zuten bere aurpegi ederra eta malko lodiak isuri zituen.

— Hemen egon behar eta zugandik urruti! esan zuten negarti.

— Maite hori -esan zion Sandokanek—. Entzuniezaidazu.

Bular ondotik kutxatxo bat atera zuen orduan Sandokanek, eta usain gatzatua botatzen zuten pilula batzuek erakutsi zizkion.

— Ikusten al dituzu pildora hauek? Pozoiaz eginak dira. Pozoi gogorra da baina ez du hiltzen. Sei orduz edozein gizasemeren bizitza gerarazi dezake. Heriotzaren antza osoa duen geratze bat da. Amets bat bezala.

— Zer esan nahi duzu horrekin?

— Juioko eta biok pilula bana hartuko dugu. Hiltzat joko gaituzte. Itsasora botako gaituzte. Gero itsasoan libre geratuko gara.

— Baina ez al zarete itoko?

— Ez, ez. Horretarako zaude zu. Horretarako behar zaitugu orain.

— Zer egin behar dut? Zer? Esan iezadazu. Prest nago edozer gauza egiteko zu libre ikustekotan behintzat.

— Orain seiak dira —esan zion piratak bere erlojuari begira—. Hemendik ordu batetara nire lagunak eta biok pildora bana hartuko dugu. Izugarrizko oihu bat botako dugu entzun dezazun. Zuk apuntatu ordu juxtu juxtua. Gero konta itzazu sei ordu eta bi segundo. Ordu hori bete aurretik agindu ezazu gu itsasora botatzeko. Saia zaitetz amakarik gabe eta pisurik gabe bota gaitzaten. Ahal baduzu bota iezaiguzu flotadore bat ere. Besterik ez bada ere, sartu arropa tartean armaren bat edo...

— Bai, Sandokan. Dena entzun dizut eta buruan daukat. Baina esan iezadazu: nora joango zarete gero itsasotik?

— Yañez gure atzetik dabil, ziur nago. Berak jasoko gaitu. Gero, jende pila inguratuko eta Labuan asaldatuko dut, su eta labain. Nik libratuko zaitut.

— Zoaz, Mariana, zoaz azkar —esan zion Sandokanek—. Bestela biok negarrez bukatuko dugu eta.
Sandokan! Sandokan!

Piratak bi eskuen tartean gorde zuen aurpegia

— Sandokan! Sandokan! —zion oihuka Marianak.

Une berean tenientea inguratu zen. Hartu zuen Mariana eta igo ziren gora.

— Madarikatuak, ez beste madarikatuak! Sandokanek oihu biziz.

Geroxeago ordea, eskotila itxi zen ostera.

Han egon zen Sandokan, makur-makur, minez. Juiokok, gero esaten dio:

— Anima zaitetz nire jaun hori. Ez dezagun itxaropena gal.

Eta Sandokanek:

— Ihes egin dezagun Juioko, ihes egin dezagun.

— Bai, egin dezagun ihes —erantzun zion besteak ere.

Atera zuen Sandokanek poltsikotik pildora kaxa. Bat daiako lagunari

eskaini zion.

- Nik agintzen dizudanean traga ezazu.
- Bai, ondo dago. Zuk esan noiz.

Jarri zuen aurrean erlojua.

- Zazpiak bi minutu gutxi dira —esan zuen Sandokanek—. Hemendik sei ordotara bizirik eta libre esnatuko gara itsasoan.

Begiak itxi eta pildora irentsi zuen Juiokorekin batera.

Bi lagunak okertu, eta hots minen tartean, ikaragarritzko oihu biziak emanaz lurrera jauzi ziren hilda bezala.

Ontzien motor eta itsasoko olatuen zarata handia izan arren, buila ikaragarri haiek ondo baino hobeto entzun ziren ontzi gainean. Mariana, urduri, zain zegoen.

Jaitsi zen behera tenientea eta besteen artean medikua ere.

Iritsi zireneko bi hildakoekin topatu ziren.

- Hil dira —esan zuen tenienteak—. Beldur nintzen.

Sendagileak aztertu zituen. Gauza garbia zen. Ezin zen ezer ere egin. Hilda zeuden.

Marinelek jaso zituzten. Bitartean tenientea Marianarengana joan zen berria ematera. Eta esan zion:

— Andereño. Berri txar bat eman behar dizut!

— Badakit zer esatera zoazen! —erantzun zion honek—. Hil direla, ezta?

— Halaxe da, andereño.

Negarrez lehertzen zegoen bitartean, zera otoi egin zion tenienteari:

— Bizirik zeudenean zureak ziren. Orain hil direnean, nireak dira.

— Egin dezakezu nahi duzuna beraiekin. Baduzu nire baimena. Baina aholku bat eman nahi nizuke.

— Ze aholku?

— Bota itzazu itsasora Labuan aldera iritsi baino lehen. Bestela, hilda egon arren, bertako gobernariak, zintzilik jartzeko aginduko du eta.

— Onartzen dut zure aholkua. Arren orain ekar itzazu bi hildakoak hona, popa aldera.

Tenienteak marinelei betetzeko agindua esan zien. Berehala jarri zituzten bi ohol zabaletan eta dena prest zegoen hildako biak itsasora botatzeko.

Mariana Sandokanen aurrean belauniko egon zen ordutan. Sandokanen aurpegia zurbil eta okertuta zegoen, pozoia eraginez. Baina betiko indar eta beldurgarritasuna mantentzen zuen oraindik ere.

Gauerdira arte mantso pasa ziren orduak. Marianak bi laban atera zituen bere golkotik eta pirata bakoitzari berea jarri zion arropa tartean.

— Horien beharra ere izango duzue agian oraindik —esan zuen.

Orduak aurrera eta aurrera. Ordu bata hogeit gutxi ziren. Jaiki zen txuri-txuri. Amula aldera joan, bi igeri gailu askatu eta itsasora bota zituen. Gero tenientearengana joan eta agindu zion:

— Jauna, bete bedi Sandokanen azkeneko desira.

Tenienteak aginduta lau marinel inguratu ziren. Hartu zituzten bi oholak eskuetan eta prestatu ziren itsasora botatzeko.

— Itxaron —esan zien Marianak—. Eta Sandokanen esku zurbila milizkatu zuen. Konturatu zen, berriro ere bizitza zetorkiola, dar-dar arin bat bezala.

Jo zuen pauso bat atzera eta agindu:

— Bota nahi duzuenean.

Berehala bi piratak uretara bota eta urpetan ezkutatu ziren. Itsasontziak aurrera jarraitu zuen, aurrera eta aurrera, Mariana barruan zelarik.

BERRIZ ASKE

Sandokanek ongi adierazi zuen bezala, sei ordu iraun zuen pilulen sasi heriotza hark. Hain zuzen, itsasera sartu zireneko, ostera bizi berrira itzuli ziren. Indarrean eta sasoian, okerrik izan gabe.

Urazpiratu zireneko ekin zioten igeri azkarrari eta urgainera atera ziren. Ingurura begiratu zuten.

Han zihoan, ez urruti, preso egon ziren barkua, Mariana eta guzti. Ziztu bizian aurrera eta aurrera.

Han tinkatu zituen Sandokanek bi begiak. Han baitzihoan bere bihotzeko Mariana.

Etorkizun iluna handik nabaritu zitekeena. Halako itsas zabalean, Malasia inguruan zeuden, uharte bat edota beste itsasontzi lagun gabe inguruan. Olatuak nonahitik, olatu apartsuak.

Beraz, komeni zen indarrak gordetzea. Alferrik baitzen korronte haren kontra borrokan hastea. Bata bestearen ondoan, badaezpada ere.

Kilometro bat edo egin zuten horrela. Halako batean, Juiokok zerbait ukitu zuen.

— Marrazo bat, marrazo bat! —oihu bizi bota zuen.

— Non? Non?

— Ez, ez, ez da marrazo —erantzun zion Juiokok—. Igerigailu bat da, igerigailu bat, igerigailu bat. Agian Marianak guretzat bota duena.

— Bila dezagun ,bada, azkar.

Saiatu ziren aurkitzen. Berehala aurkitu zuten. Marianak botatako igerigailu bat zen.

— Hau da poza hau! —esan zuen Juiokok—. Ez nuen halakorik espero. Nora goaz orain?

— Gu eramaten gintuen ontzia, ipar mendebaldetik zetorren. Beraz, bide horretatik Yañez aurkituko dugula uste dut.

— Bai ote? —Juiokok.— Hala espero dut —erantzun zion Sandokanek.

— Eta marrazoak erasotzen bagaituzte, zer?

— Zer egingo dugu bada? Gu ere urazpira sartuko gara eta borroka egin beharko dugu.

— Eta Yañez delako hori ez da inondik ageri!

— Oraindik urruti egongo da, beharbada.

— Aurkituko dugu ez? Zer iruditzen zaizu?

— Zer nahi duzu nik esatea? Nik uste dut baietz. Barruak baietz agintzen dit.

— Erne kapitaina, erne —esan zuen une berean daiakoak—. Marrazo bat dabilkigu gure tartean.

— Bai —erantzun zion Sandokanek—. Ni ere konturatu naiz! Prestatu ezazu labana.

— Erasoko ote gaitu?

— Uste dut baietz, Juioko. Barkuaren atzetik etorriko zen zerri hori!

- Beldur naiz, kapitaina —kexatu zen Juioko.
- Lasai! Lasai! Oraindik bizi gara eta.
- Agian azpitik erasoko gaitu.
- Konturatuko gara, bai, inguratzen zaigunean.
- Eta igerigailuak, zer?
- Gure aurrean daude. Bi besakadatan harrapatuko ditugu.
- Ez naiz mugitzera ere ausartzen!

Juioko beldurrez lehertzen zegoen. Ezin bait zuen gizagajoak mugimendu jator bat ere egin.

- Juioko —oihu egin zion Sandokanek—.Ez ezazu bururik galdu. Hankak salbatu nahi badituzu, heldu iezaiozu zure igerigailuari eta prestatu labana.

Berrogeita hamar besakada eman zituztenerako, pizti haietako baten burua ikusi zuten.

Marrazoak berak ere maltzurki begiratu zien bi igerilariei eta halako suspirio zakar bat bota zuen.

Geldirik jarri zen une batean olatuen gain kulunkatuz. Gero hegatzak mugituaz aurrera jo zuen zapartaka.

- Kapitain jauna! —larri Juiokok.

Sandokan ordea, aspertuta zegoen animaliairen zain. Hartu zuen hortzetan labana, askatu zuen igerigailua eta animaliarengana zuzendu

zen.

— Zuk ere odola nahi al duzu? —esan zion oihuka—. Ea bada, nork isurtzen duen gehiago.

— Utz iezaiozu bakean —oihu egin zion Juiotkok.

— Utz iezaidazu akabatzen -erantzun zion honek—. Ale marrazo letxe hori. Eraso nazak!

Munstroak ere entzun zituen Sandokanen oihuak. Geratu eta une batean begira jarri zitzaion. Hurrena urazpira sartu zen zalapartaka.

— Azpitik joko gaituela, azpitik! —zioen daiakoak beldurrez hil zorian.

Baina ez zen halakorik gertatu. Atzera urgainera igo zen. Ez zuen borrokarako gogorik. Eta aurrera ekin zuen olatu apartsuen tartean.

Egia esan, Sandokan poztu egin zen. Are eta gehiago Juioko. Ez zuen borrokarik nahi. Beraz, joan zedila bake santuan. Bi igerilariak berriro igerigailuak hartu eta ipar-mendebaldera jo zuten.

Baina arriskuak ez baitzuen aldegin. Marrazo hura, jolasean zebilen. Noizbehinka atzera begiratu eta itzultzen zen. Berrogeita hamar metrotara mantentzen zen. Eraso botatzeko une onenaren zain zegoen, itxuraz.

Eta hara, non abiatzen den bipilki haiengana, sekulako buztankadak joaz.

Bi gizoni inguraketak egiten hasi zen gero. Nahiz urazpitik, nahiz ur gainetik, gero eta borobil estuagoak eta inguratuagoak.

— Kontu, kapitain jauna —garraisi egin zuen Juikok.

- Prest nago —erantzun zion Sandokanek—joan al zaizu beldurra?
- Zeharo ez, baina orain hobeto nago.
- Ez askatu igerigailua hori nik esan arte.

Esku bat salbabidetan eta bestearekin igerian, atzera jo zuten bi piratek. Beti ere marrazoa zainduz.

Honek kristoren olatuak jasotzen zituen, bitartean bere hortz eta hagin zorrotzak erakusten zituela.

Bat-batean izugarrizko jauzi bat eman, ur gainean zeharo atera eta Sandokanen kontra erori zen.

Sandokanek ordea, igerigailua askatu eta urpera jo zuen biziki. Juioko ere ausarta bihurturik animaliaaren aurka zuzendu zen laban eta guzti.

Animaliak ordea, ez zion Juiokoren erasoari jaramonik egin. Bestea ur azpian sartu zenean, berak ere urazpira jo zuen buztankada gogor baten bitartez.

Sandokan ordea, ez zegoen lotan. Zain baizik. Ondoan ikusi bezain azkar, heldu zion hegatz batetik eta sabel-sabelean sastakatu zuen labanarekin.

Arrain bedeinkatu hark aldegin nahi izan zuen eta gora jo zuen. Hiltzear zaurituta ordea, agian. Juiokoren ondoan atera zen. Hura han ikustean, ordea, aldegin nahi izan zuen. Bere lepagazta itzuli zuen. Une berean, ordea, berriro ere Sandokanek labana sartu zion. Oraingo honetan buruhezur erdi erdian. Daiakoak ere sartu zion berea behin eta berriro, zera esanaz:

- Munstro alen hori, hoa infernura behin betirako.

Eta, hala, munstro ikaragarri hura urpera joan zen hilda, itsas gain guztia odolez estaltzen zen bitartean.

— Ez dut uste—esan zuen Sandokanek—berriro molestatuko gaituenik. Zer diozu, Juioko?

Honek, ordea, ez zion erantzun. Igerigailuari heldu eta urrutira begira zegoen. Zerbaiten bila, akaso.

— Zeren bila zabilta? —galdetu zion Sandokanek.

— Begira han urrutira, Sandokan. Begira han urrutira —garraisi egin zuen Juiokok—. Oker ez banago, han konkor edo hala moduzko tzar bat begizatzen dut. Han ipar mende aldean! Belaontziren bat, agian.

— Yañez ote dugu bada? —galdegin zuen Sandokanek, emozioz beteta.

— Ilunpe honetan ezin da gauza garbirik ikusi. Baina barruak dar-dar egiten dit. Bihotza taupada bizian daukat.

— Zure bizkarretara igoko naiz!

Inguratu zitzaion daiakoa Sandokani. Honek heldu zion bizkarretatik eta altxa zuen ahal haina bere gorputza.

— Zer ikusten duzu kapitaina?

— Ontzi bat da, gureen antzekoa. Ai bera balitz!

— Lagunak edo etsaiak izan, ea jasotzen gaituzten!

Orduan Juiokok ahal zuen bezain sendo, oihu bizian zera bota zuen:

-- Eeeee! Uuuuuntziiii! Laaaagundu...!

Une bat geroago tiro bat entzun zen eta ahots trinko bat:

- Nor ari da deika?
- Urikalduak! Urikalduak!
- Egon pixka bat.

Berehala hiru barkuk, hirurak batera, biratu zuten haizearen indarrari esker.

- Non zaudete? —galdetu zuen ahots berberak.
- Ingura zaitetze gehiago —ahots indarrez Sandokanek.

Isilune latz bat egin zen. Eta gero:

- Deabru guztiak eraman nazatela! Nahasten ez banaiz bera da, bera da!

Eta Sandokanek segidan:

- Yañez, Yañez! Ni naiz, ni naaaaaiz, Malasiako Tigreaaaa!

Hiru barkuetatik oihu berbera entzun zen:

- Gora gure kapitaina. Gora Tigrea!

Inguratu zen ontzi bat. Bota zuen soka eta biak tximuak baino bizkorrago gora igo ziren.

Igo bezain azkar, bi beso indartsuk besarkatu zuten ia itotzeraino Sandokan!

— Anaiatxo, anaiatxo, ez nuen uste berriro bizirik aurkituko zintudanik! Hau poza!

Sandokanek antzeko besarkada itzuli zion Yañezi. Eta denak zera zioten oihu biziaz:

— Gora Tigrea, gora!

— Zatoz nire ganbarara —esan zion Yañezek—. Gauza asko esan behar didazu. Zure berri guztiak jakin nahi ditut.

Sandokanek jarraitu zion. Eta bi lagunak behera jaitsi ziren. Bitartean hiru barkuak, oihal guztiak haizeari zabalik aurrera eta aurrera ekin zioten.

— Esan iezadazu, arren, Sandokan. Nola zuek hemen uretan? Nik bizirik edo hilda, ez nenkien nola, baina kruzero hartan zeundetela uste nuen eta... Ihes egin nuenetik bere atzetik nabilkizu.

— Beraz, zuek atzetik zineten, eee? Pentsatu nuen bai.

— Zer bada...! Hiru ontzi eta ehun eta hogeit hamar lagun dauzkat une honetan. Ez al zen bidezko jarraitzea?

— Baina non bildu duzu hainbeste jende?

— Ba al dakizu nortzuk diren beste bi ontzien buruak?

— Nola nahi duzu bada jakitea?

— Paranoa eta Maratua.

— Beraz, Labuan inguruan izan genuen ekaitz hark, ez al zituen urpera bidali?

— Noski ezetz. Bestela ez lirateke hemen egongo. Maratua, Pulo Gaya deritzaion irlaraino joan zen haizeak bultzaka. Paranoa, berriz, Ambog deritzaion badian babestu zen. Han egon ziren ontzi puzkatuak berriz ere konpondu arte. Gero Labuan aldera etorri ziren. Han elkartu ziren. Gu han ez ginela eta, Mompracem aldera zuzendu ziren. Han topatu nituen , nik bart gauean. Indiara abiatzekotan ziren, gu ere han ote ginen pentsatuaz.

— Beraz, Mompracem uhartean lurrartu al zenuen atzo? Nola dago irla hura? Han al daude ingelesak?

— Ez, Sandokan, ez. Herriari su eman, azkeneko gotorlekuari su eman eta alde egin zuten.

Une bat geroago hiru itsasontziak Hiru Irla aldera jo zuten.